



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

**Berdintasuna
Igualdad**

2020KO UDAL AURREKONTUEN ANALISIA GENEROAREN IKUSPEGITIK

2019ko urria

2020KO UDAL AURREKONTUEN ANALISIA GENEROAREN IKUSPEGITIK

AURKIBIDEA

1.	ESPARRU LEGALA ETA PROGRAMATIKOA	4
2.	GENEROAREN IKUSPEGIA DUTEN AURREKONTUAK	4
3.	DONOSTIAKO UDALAK GENEROAREN IKUSPEGIA SARTZEKO EGIN DUEN IBILBIDEA	5
4.	2019AN EGINDAKO PROZESUA	6
5.	2019KO UDAL AURREKONTUEN BERDITASUNERAKO PARTIDA ESPEZIFIKOEN EXEKUTATZEA	7
6.	AURREKONTU OROKORRAK	10
7.	AZTERTUTAKO PROGRAMAK	16
	7.1. Babes eta sustapen sozialaren jarduketak	18
	● Berdintasuna	18
	● Lankidetza eta Garapenerako hezkuntza	21
	● Donostia Lagunkoia	24
	● Gizarte ekintza: Zuzendaritza eta administrazioa	25
	● Gizarte Zerbitzuguneak	26
	● Haurren eta familien prebentzioa	27
	● Adinekoen sustapena	28
	● Zahar egoitza	30
	● Tutoretzapeko apartamentuak	30
	● Etxez etxeko laguntza	32
	● Gizarte larrialdirako laguntzak	34
	● Gizarte harrerako zentroa	35
	● Gizarteratzea	36
	7.2. Lehenetasunezko ondare publikoen ekoizpena	39
	● Ikastetxeen funtzionamendua	39
	● Hezkuntza programak	40
	● Giza eskubideak	41
	● Kultur aniztasuna	42
	● Donostia Kultura	44
	● Musika eta dantza eskola / Liburutegia / Txistulariak	45
	● Gazteria	48
	● Donostia Kirola / Kirol instalazioak (Donostia Kirola) / Kirolak:	51

7.3.	Oinarrizko zerbitzu publikoak	54
●	Udaltzaingoa	54
●	Hiri mugikortasuna	55
●	Mugikortasun bertikala	58
●	Hirigintza	58
●	Etxegintza	59
●	Bide publikoak	60
●	Argiteria	61
●	Parkeak eta lorategiak	62
●	Hondartzak	62
7.4.	Jarduera ekonomikoak	63
●	Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	63
●	Proiektu eta obrak	64
●	Donostia Turismo	65
●	Sustapena, S.A.	66
●	DBUS	69
7.5.	Jarduera orokorrak	71
●	Herri partaidetza	71
8.	GASTU ERALDATZAILEA 2020KO UDAL AURREKONTUETAN	74
9.	HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	75

1. ESPARRU LEGALA ETA PROGRAMATIKOA

UDAL ARAUDIA

- Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planeko 1.2. neurria, 2014ko abuztuaren 25eko Udaleko Gobernu Batzarrean onetsia. <<Donostiako Udalaren Aurrekontu Orokorrak generoaren ikuspegitik lantzea eta gauzatzea>>.

ERKIDEGOKO ARAUDIA

- 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 28KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. 14. artikulua. <<Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.>>.
- ERABAKIA, 2016KO UZTAILAREN 21EKOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ KONPROMISO BATZUK HARTZEN BAITIRA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREN BETETZE, GARAPEN ETA APLIKAZIOARI BURUZ 2015EAN EGINDAKO EBALUAZIOAREN EMAITZETAN OINARRITUTA. 2. apartatua. Progresiboki handitzea administrazio publiko bakoitzean berdintasun politiketara bideratutako aurrekontuaren ehunekoa.
- EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA Gobernu Onerako 2 helburu:
 - BG.2. helburua Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea, I. programan, Konpromiso politikoa izenekoan ezarria
 - BG.10. helburua Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea, III. programan, genero ikuspegia lan prozeduretan izenekoan ezarria.

2. GENEROAREN IKUSPEGIA DUTEN AURREKONTUAK

Aurrekontu publikoek eragin egiten dute hainbat kolektibok dituzten baliabideetan: emakumeak eta gizonak, migratzaileak, adinekoak, gazteak edo haurrak. Generoaren ikuspegia duten aurrekontuek bi helburu dituzte:

1. Kontuan izanda emakumeen eta gizonen artean dagoen desparekotasuna, ezagutzea aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan duten eragina, ahal den heinean, kontuan izanda beste diskriminazio ardatz batzuk, esaterako, adina, migrazio egoera edo errenta maila.
Kontua ez da ea gastua berdina den emakumeentzat eta gizonentzat, horien beharrak eta egoerak asetzen dituen baizik.
2. Berdintasuna sustatzeko tresna izatea. Benetako berdintasunerantz aurrera egiteko formula nagusietako bat, gaur egun, generoaren mainstreaming-a da. Estrategia honen helburua da jarduketa publiko guztiak generoaren ikuspegitik berrikustea, jarduketa horiek generoaren desparekotasunak ez iraunarazteko edo zabaltzeko helburuarekin.

Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso politikoak, eraginkorra izateko, hori bermatzeko neurriak behar ditu, esaterako, emakumeen eta gizonen berdintasunerako araudi espezifikoak sortzea, **aurrekontu baliabideak gehitzea** eta era egokian prestatutako eta legitimatutako egiturak eta pertsonak ezartzea politikak garatzeko, politikak planifikatzeko eta ebaluatzeko eta gardentasunaren kultura sustatzeko.

Aurrekontuak generoaren ikuspegitik aztertzea desparekotasunei eta horiei aurre egiteko moduari buruzko ezagutza sortzen laguntzen duen azterketa tresna bat da, eta erabakiak era informatuan hartzen laguntzen du. Funtsezko tresna bat da helburu politikoak aurrekontu baliabideekin lotzeko.

3. DONOSTIAKO UDALAK GENEROAREN IKUSPEGIA SARTZEKO EGIN DUEN IBILBIDEA

Aurrekontuak generoaren ikuspuntutik egiteko prozesua 2013ko ekainean hasi zen, Berdintasunaren Bulegoak lan jardunaldi bat antolatu zuenean Andaluziako Juntak arlo honetan zuen esperientzia ezagutzeko. Jardunaldi horretan politikariek eta zuzendariak parte hartu zuten, baita Programakuntza, Azterlanak eta Aurrekontuak unitateko teknikariek, eta hainbat departamentutan aurrekontua eratzeko ardura duten teknikariek ere.

2013ko uztailan, Berdintasunaren eta Ogasunaren atalak metodologia bat adostu zuten. Nahiz eta metodologia horrek Andaluziako esperientziaren elementuak hartu zituen, Donostiako Udalaren tamainara, eskumenetara eta denboretara egokitu zen.

Une horretatik aurrera, aurrekontu programei eta horiei lotutako jarduerari zein langileei buruzko informazioa biltzen hasi ziren, Euskal Herriko Unibertsitateko Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañaga irakasleen aholkularitzarekin.

2014ko otsailan **“Aurrekontuak genero perspektibarekin egiteko gomendio txostena”** argitaratu zen. 2014ko aurrekontu proposamenaren ingurukoa izan zen, ordurako Udaleko Osoko Bilkurak onetsi zuen proposamen hori eta txosten horrek bere gomendioen bidez oinarri metodologikoa eta eman beharreko hurrengo pausoak ezarri zituen. Gainera, aurrez bildutako informazioa aztertuta, prozesuan horiek guztiak lehenetsunez zein arloekin sakondu behar ziren identifikatu zuen. Hauek ziren arlo horiek: Azpiegiturak eta hiri zerbitzuak, Mugikortasuna, Gizarte Ekintza, Gizarte Sustapena eta Herri Partaidetza eta Donostia Kultura.

2014an zehar gobernu taldeak aurrekontuek duten genero eraginari buruzko prestakuntza jaso zuen, eta, halaber, lan prestakuntza saio bat egin zen aipatutako arloekin eta Ogasuneko eta Berdintasuneko teknikariek.

2014ko abenduan **“2015eko Udal Aurrekontuen Azterketa Genero Ikuspegitik”** txostena aurkeztu zen, 2015eko aurrekontuari buruzkoa, une horretan proposamen fasean zegoenari buruzkoa.

Hainbat hilabeteko geldialdiaren ondoren, prozesua berrartu zen 2015eko azken hiruhilekoan. Programakuntza, Azterlanak eta Aurrekontuak unitatearekin zuzenean elkarlanean arituta 2015eko abenduan aurkeztu zen **“2016ko Udal Aurrekontuen Azterketa Genero Ikuspegitik”** txostena, 2016ko aurrekontuari buruzkoa, une horretan proposamen fasean zegoenari buruzkoa. Azken horretan txertatu ziren aldaketa nagusiak bi dira:

- Txostenean udal aurrekontuak aztertu ziren soilik. Langileei eta kontratazioari buruzko azterketa txosten espezifikoak egin ziren.
- Txostena aurrekontu programen arabera egituratu zen, departamentuen edo zuzendaritzen arabera egin beharrean.

Ordutik, Berdintasun Bulegoak eta Programakuntza, Azterlanak eta Aurrekontuen Unitateak batera lan egiten dute generoaren ikuspegia udal aurrekontuen prozesuan sartzeko.

Prozesu honen emaitza, 2014-2018 aldirako Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako

III. Planaren ebaluazio txostenean jasotzen den bezala, hau da:

- **Berdintasunaren aurrekontu programa eta hainbat departamentutako partidak igo dira**, eta horri esker Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean jasotako beste neurri batzuk garatu ahal izan dira.
- **Berdintasunerako gastu eraldatzailea igo da.**
- **Aurrekontuak egiteko prozesuan berdintasuna txertatu da:** norabide askotako aurrekontu proposamena, aurrekontu eztabaidan sartzea, errespetatu behar diren berdintasuneko gutxieneko politiko batzuk identifikatuz.

2019ko udal aurrekontuetan, programen % 35,2 aztertu ziren, hau da, udal aurrekontuen % 57,13. Berdintasunaren 14 partida espezifikoki txertatu ziren eta gastu eraldatzailea % 0,42koa izan zen.

4. 2019AN EGINDAKO PROZESUA

2019an egindako prozesua 2019ko udal hauteskundeek eta zinegotzitzen eta zuzendaritzen aldaketek baldintzatu dute.

Azken bi ekitaldietan lehenetsitako lan ildoarekin jarraitu da, hau da, **berdintasunerako gastu espezifiko berrmatzea, partida horien gastua exekutatuta.**

Gainera **azterketan hiru programa berri txertatu dira: Donostia Lagunkoia eta Donostia Turismo**, 2019ko udal aurrekontuen txostenean gomendatzen zen bezala, generoaren ikuspuntutik garrantzitsuak baitziren. Baita **Mugikortasun bertikala** ere, inbertsio interesgarria duelako generoaren ikuspuntutik.

Partaidetza aurrekontuen proiektuari dagokionez, partaidetzarekin batera lan egiten jarraitzen da. Proiektua bi urtean behin egingo da; beraz, aurten lankidetza, gehienbat, **izango da Berdintasunaren Unitateak 2021eko partaidetza aurrekontuen prozesuaren diseinuan parte hartzea.**

5. 2019KO UDAL AURREKONTUEN BERDITASUNERAKO PARTIDA ESPEZIFIKOEN EXEKUTATZEA

2018an egin zen prozesuaren emaitza izan zen, prozesuaren gastu eraldatzailearen ehunekoa igo ahal izateko, 2019ko udal aurrekontuetan hobekuntzak jasotzea; izan ere, ulertzen da gastu horrek lagundu egiten duela genero desparekotasunaren oinarritzko egiturak hausten, baita desparekotasun hori eratzen eta birsortzen duten mekanismoak desmuntatzen ere.

Iturria: 2019ko udal aurrekontuen azterketa generoaren ikuspegitik

Departamentua	1. kap.	2. kap.	4. kap.	6. kap.	GUZTIRA	%aurrek. guztiaren gain
Berdintasuna	441.410,99	302.130,93	128.000,00	94.500,00	966.041,92	% 0,21
Lankidetzak			703.748,00		703.748,00	
Gizar Ekintza	115.000,00	15.000,00			130.000,00	
Hezkuntza Programak		51.916,35			51.916,35	
Giza Eskubideak		4.000,00			4.000,00	
Kultur Aniztasuna		10.000,00			10.000,00	
Donostia Kultura		66.500,00			66.500,00	
Musika eta Dantza Eskola		4.770,00			4.770,00	
Udaltzaingoa		3.500,00			3.500,00	
Gazteria		20.500,00			20.500,00	
Donostia Kirola		4.235,00			4.235,00	
Hiri Mantentze eta zerbitzuak		25.000,00			25.000,00	
Dbus		4.500,00			4.500,00	
Herri Partaidetza		8.000,00			8.000,00	
GUZTIRA	556.410,99	520.052,28	831.748,00	94.500,00	2.002.711,27	% 0,43

2019an 2. kapituluko partida espezifiko hauen exekutatzearen segimendua egin dute zeregin nagusitzat berdintasuna ez duten udaleko departamentuek, enpresek eta erakundeek.

● GIZARTE EKINTZA

15.000,00 eurotik 13.537,00 euro gastatu dituzte. 15.000 euroko kopuru hori *Azterlan eta lan teknikoak* 226.09 partidan eta *Indarkeria matxistaren aurkako prebentzio programa* 227.04.02 partidan jaso da. Gastua jarduketa hauetan exekutatu da, gehienbat:

- **Emakumeentzako arretaren diagnostikoa eta hobekuntza proposamenak** egitea Gizarte Harrerako Udal Zentroan eta etxerik gabekoei arreta emateko beste baliabide batzuetan (7.260 €).

- **Prestakuntza-ikuskapena indarkeria matxistaren kasuetan** (2.460 €).
- **Indarkeria matxista prebenitzeko programa** exekutatzea ahultasun egoeran dauden gazteekin (3.817 €)

Guztira, aurreikusitako partida espezifikoen % **90,2** gastatu da.

Gainera, eta **Genero Indarkeriaren Estatu Itunetik** jasotako diruarekin, pertsona bat kontratatu da indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko programa indartzeko, 51.353,40 euroko kostuarekin.

Guztira, 64.890,40 euroko gastua, aurreikusitakoa baino 4,3 aldiz gehiago.

● HEZKUNTZA PROGRAMAK

Aurreikusitako 51.916,35 eurotik 41.350,00 euro exekutatu dira (% 79,6), esku hartze hauetan:

Berdintasun Programa 226.99.01 partidatik:

- **Inspira Steam**, lehen hezkuntzako ikasleei **bokazio zientifikoa eta teknologikoa sustatzeko**, generoaren ikuspegitik: 6.050 €. Programa hau irailean hasi zen 2019-20 ikasturtean eta zenbateko hori 2019ekoa da.
- **Orekatu, bullyinga prebenitzeko antzerkia**: 7.800 €. Programa hau irailean hasi zen 2019-20 ikasturtean eta zenbateko hori 2019ekoa da.
- **Parekide, baterako hezkuntzaren programa**: 7.775 € (1.325 euro 2018-19 ikasturtekoak eta 6.450 euro 2019-20 ikasturtekoak).
- **Garapen emozionalerako programa**: 5.625 €.

Indarkeriaren prebentzioa 226.99.02 partidatik:

- 3. DBHko ikasleen artean **indarkeria matxista prebenitzeko** kontratua: 14.100 €.

● GIZA ESKUBIDEAK

226.99.02 partidan aurreikusitako 4.000,00 euroak gastatu dira **LGTBQ ekainaren 28ko kanpainarako**.

● KULTUR ANIZTASUNA

226.99.03 partidan aurreikusitako 10.000,00 euro gastatu dira, **Emakumeen kulturarteko eremua** garatzeko Donostiako Emakumeen Etxean.

● DONOSTIA KULTURA

Aurreikusitako partida espezifikoa 66.500 eurokoa zen. Orain arte 38.680,00 euro (% 58,17) exekutatu dira jarduketan hauetan:

- **"Gure Ahotsak" kontzertua** Victoria Eugenia antzokian, Emakumeen Nazioarteko Eguna zela eta: 20.000 €.
- Casares eta Intxaurrendoko **Kultur Etxeetan Emakumeen Astea** antolatzea: 7.900 €.
- **Gipuzkoako emakume ilustratzaileen erakusketa** Egiako pasadizoan, Olatu talkaren esparruan: 3.500 €.
- **"Zertan ari gara" obra eta tailer didaktikoak** zeinetan jeloskortasuna eta tratu txarrak landu diren: 7.280 €.

● MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

Aurreikusitako 4.770,00 euroak gastatu dira **argitalpenetan, konferentzietan, funts bibliografikoetan, protokolozko arretan eta arreta adierazgarrietan**, baita kanpoko enpresak kontratatzen ere.

● UDALTZAINGOA

Aurrekontuetan aurreikusitako 3.500,00 eurotik 1.970,00 euro gastatu dira **indarkeria matxistaren prestakuntza jasotzeko udaltzainek**, horrek esan nahi du **% 56,3 exekutatu dela**.

● GAZTERIA

2019an 20.500,00 euroko partida bat (226.06.07) txertatu zen indarkeria matxista prebenitzeko. Guztira, **21.700,00 euro gastatu dira (% 105,9)** programa eta jarduera hauetan:

- Nerabezaroko **indarkeria matxistari buruzko jardunaldien 3. edizioa**: 9.000,00 €. Edizio hau urriaren 23an izan da eta, gehienbat, LGTBQ+ kolektiboari eta, batez ere, transexualitateari buruzkoa izan da, zeren indarkeria matxistaren argazki handian, gay, lesbiana eta transexualek indarkeria espezifiko bat pairatzen dute bizitzaren hainbat arlotan.
- **Eraso sexisten eta indarkeria matxistaren kasuetarako prebenitzeko eta horietan jarduteko protokoloaren** segimendua udalaren Gaztelekuetan, Haurtxokietan eta Kontadores gazte zentroan. 6.200,00 euro
- **Beldur Barik** kanpaina eta lehiaketa dinamizatzea eta sustatzea. 2.200,00 euro.
- **Autodefentsa feministaren tailerrak** udalaren Gaztelekuetan 1.200,00 euro
- **Autodefentsa ikastaroak hezitzaileentzat**. 1.200,00 euro
- **Stencil tailerra eta artearen historia hackeatzeko irudiaren laborategia**. 1.300,00 euro
- **Maskulinitateen tailerra**. 600,00euro

● DONOSTIA KIROLA

Aurreikusitako 4.235,00 euroak gastatu dira **Goazen neskak bideoa** egiten. Gainera gastuaren 2.500,00 euro seinalatu dira **emakumeen kirolaren trofeoetarako**.

● HIRI MANTENTZEA ETA ZERBITZUAK

Puntu kritikoak hobetzeko 25.000,00 euroko 226.99.02 partidaren inguruan, txosten hau egindako egunean, ez zegoen exekutatzeari buruzko daturik.

● DBUS

Aurreikusitako 4.500,00 eurotik gorako zenbatekoa gastatu dute, zehazki **11.650,00 euro (planifikatutakoa baino 2,6 gehiago)**.

- **B1, B2, B3, B4, B6, B7, B9 eta B10 lineetan eskaerapeko geldialdien diseinua** aztertzeke eta planifikatzeko: 8.000,00 €.
- Bertaratzea **berdintasunari buruzko konferentzietara, workshopetara, mintegietara, etab.:** 900,00 €.
- **Dbus-en emakumeen eta gizonen berdintasunaren diagnostikoa eguneratzea**, erakundearen berdintasunaren III. plana egiteko esparruan: 2.750,00 euro.

● PARTAIDETZA

2019ko aurrekontuetako 8.000,00 euro gastatu dira, **puntu kritikoen Mapa ebaluatzeko**.

Beraz, eta txosten hau egitean eskura zegoen informazioaren arabera, 2019an, **2. kapituluko partida espezifikoak batez beste % 74,86 exekutatu dira (Berdintasuna izan ezik)**. Ehuneko hori % 98,08ra igo da Estatuko Itunaren partida kontatzen badugu (51.353,40 euro).

Atal honetan jasotzen den gastu eraldatzailearen exekutatzearen segimendua osatzeko helburuarekin, **2020. urteko lehen hiruhilekoan horri buruzko txosten exekutibo bat egingo da**, “2019ko udal aurrekontuen azterketa generoaren ikuspegitik” txostenean gomendatzen zen bezala.

6. AURREKONTU OROKORRAK

Txosten honekin batera dagoen aurrekontu proposamenaren arabera, **Donostiako Udalak 432.540.636,00 euro kudeatuko ditu 2020an, 2019an baino 34.906.054,90 euro gutxiago** (% 7,47ko jaitsiera), urte horretan udal aurrekontuaren zenbatekoa 467.446.690,90 eurokoa izan baitzen.

Kontuan hartuta gastu helburu batzuk **% 8,80 igo dira jarduketa ekonomikoak** (enpresak, garraioa, azpiegiturak) eta **% 2,80 igo dira babes eta sustapen sozialeko jarduketak (Gizarte Zerbitzuak eta berdintasuna)**, oso lotuak daudenak bizitzako zaintzei eta jasangarritasunari, funtsezkoak direnak generoaren ikuspegitik, eta % 17,22 jaitsi da *lehentasunezko ondare publikoen ekoizpena* (osasuna, hezkuntza, kultura, kirola), % 13,63 *jarduketa orokorra* (gobernu organoak, administrazio orokorra...), % 8,72 *zor publikoa eta* % 8,51 *oinarrizko zerbitzu publikoak* (herri segurtasuna, etxebizitza, hirigintza, ura eta saneamendua, hondakinak, etab.).

Gastu arloa	2019		2020		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Oinarrizko zerbitzu publikoak	182.286.741,02 €	%39,00	166.774.126,00 €	%38,56	-15.512.615,02 €	-%8,51
Babes eta sustapen sozialeko jarduketa	30.832.402,98 €	%6,60	31.695.028,00 €	%7,33	862.625,02 €	%2,80
Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena	109.683.849,72 €	%23,46	90.798.659,00 €	%20,99	-18.885.190,72 €	-%17,22
Jarduketa ekonomikoak	78.313.747,16 €	%16,75	85.204.547,00 €	%19,70	6.890.799,84 €	%8,80
Jarduketa orokorra	50.448.118,50 €	%10,79	43.571.333,00 €	%10,07	-6.876.785,50 €	-%13,63
Zor publikoa	15.881.831,52 €	%3,40	14.496.943,00 €	%3,35	-1.384.888,52 €	-%8,72

Kontuan izanda gastu politikak, azpimarratzekoa da *Garraio publikoaren* (% 24,02) eta *Gobernu organoen* (% 16,51) hazkundera. Nahiz eta txikiagoa den, baita hauena guztiena ere: *Finantza eta zerga administrazioa* (% 5,37), *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* (% 4,56), *Komunitate ongizatea* (% 4,32) eta merkataritzaren, turismoaren eta enpresa txikien eta ertainen administrazio orokorra (% 4,18). **Garraio publiko eta Gizarte zerbitzuen eta gizarte sustapenaren gastu politiken hazkundera garrantzitsuak dira generoaren ikuspegitik.**

Gastu politikak	2019		2020		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK						
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	48.751.432,48 €	%10,43	49.177.358,00 €	%11,37	425.925,52 €	%0,87
Etxebizitza eta Hirigintza	66.011.934,30 €	%14,12	47.260.421,00 €	%10,93	- 18.751.513,30 €	-%28,41
Komunitate-Ongizatea	53.772.826,00 €	%11,50	56.097.849,00 €	%12,97	2.325.023,00 €	%4,32
Ingurumena	13.750.548,24 €	%2,94	14.238.498,00 €	%3,29	487.949,76 €	%3,55
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA						
Erretiro pentsioak	20.000,00 €	%0,00	20.000,00 €	%0,00	- €	%0,00
Enplegatuen aldeko beste prestazio	1.382.451,87 €	%0,30	901.738,00 €	%0,21	- 480.713,87 €	-%34,77
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	29.429.951,11 €	%6,30	30.773.290,00 €	%7,11	1.343.338,89 €	%4,56
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA						
Osasuna	2.162.954,34 €	%0,46	2.249.069,00 €	%0,52	86.114,66 €	%3,98
Hezkuntza	13.978.869,18 €	%2,99	14.092.295,00 €	%3,26	113.425,82 €	%0,81
Kultura	43.483.238,58 €	%9,30	42.731.721,00 €	%9,88	- 751.517,58 €	-%1,73
Kirola	50.058.787,62 €	%10,71	31.725.574,00 €	%7,33	- 18.333.213,62 €	-%36,62
JARDUKETA EKONOMIKOAK						
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	19.174.680,91 €	%4,10	19.975.393,00 €	%4,62	800.712,09 €	%4,18
Garraio publikoa	38.952.160,91 €	%8,33	48.309.404,00 €	%11,17	9.357.243,09 €	%24,02
Azpiegiturak	20.083.239,24 €	%4,30	16.816.084,00 €	%3,89	- 3.267.155,24 €	-%16,27
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	103.666,10 €	%0,02	103.666,00 €	%0,02	- 0,10 €	%0,00
JARDUKETA OROKORRA						
Gobernu organoak	5.203.020,60 €	%1,11	6.061.958,00 €	%1,40	858.937,40 €	%16,51
Administrazio orokorra	38.048.884,68 €	%5,24	29.926.576,00 €	%6,92	- 8.122.308,68 €	-%21,35
Finantza eta zerga administrazioa	7.196.213,22 €	%1,54	7.582.799,00 €	%2,00	386.585,78 €	%5,37
ZOR PUBLIKOA						
Zor publikoa	15.881.831,52 €	%3,40	14.496.943,00 €	%3,35	- 1.384.888,52 €	-%8,72
GUZTIRA	467.446.690,90 €	%97,10	432.540.636,00 €	%100,25	- 34.906.054,90 €	-%7,47

Gehien jaitsi diren politikak hauek izan dira: *Kirola* (-% 36,62), *Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk* (-% 34,77), *Etxebizitza eta Hirigintza* (-% 28,41), *Administrazio orokorra* (-% 21,35) eta *Azpiegiturak* (-% 16,27).

Banakapen maila zabalduz gero, jarraian aldakuntza ikus daiteke aurrekontu programen arabera:

Kultura	43.483.238,58 €	%9,30	42.731.721,00 €	%9,88	- 751.517,58 €	-%1,73
Kulturako administrazio orokorra: Donostia Kultura	30.337.233,57 €	%6,49	30.947.231,00 €	%7,34	609.997,43 €	%2,01
Udalaren musika eta datza eskola (Liburutegia)	159.945,18 €	%0,03	166.016,00 €	%0,04	6.070,82 €	%3,80
Tabakalera	2.650.000,00 €	%0,57	2.292.163,00 €	%0,53	- 357.837,00 €	-%13,50
Kultura: sustatzea eta bultzatzea	1.982.475,00 €	%0,42	1.989.275,00 €	%0,46	6.800,00 €	%0,34
Udalaren musik-a eta datza-eskola (Txistulariak eta Emusik2016)	611.245,71 €	%0,13	643.801,00 €	%0,15	32.555,29 €	%5,33
Euskara	2.798.906,29 €	%0,60	2.813.421,00 €	%0,65	14.514,71 €	%0,52
Zaharren etxeak	2.444.852,15 €	%0,52	1.248.412,00 €	%0,29	- 1.196.440,15 €	-%48,94
Gazteria	2.498.580,68 €	%0,53	2.631.402,00 €	%0,61	132.821,32 €	%5,32
Kirola	50.058.787,62 €	%10,71	31.725.574,00 €	%7,33	- 18.333.213,62 €	-%36,62
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	4.460.438,78 €	%0,95	4.452.845,00 €	%1,03	- 7.593,78 €	-%0,17
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	120.000,00 €	%0,03	160.000,00 €	%0,04	40.000,00 €	%33,33
Donostia Kirola	2.971.664,03 €	%0,64	3.138.083,00 €	%0,73	166.418,97 €	%5,60
Kirol instalakuntzak	10.543.359,31 €	%2,26	6.156.641,00 €	%1,42	- 4.386.718,31 €	-%41,61
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	8.432.173,60 €	%1,80	9.468.893,00 €	%2,19	1.036.719,40 €	%12,29
Anoeta Kiroldegia	23.531.151,90 €	%5,03	8.349.112,00 €	%1,93	- 15.182.039,90 €	-%64,52
JARDUKETA EKONOMIKOAK	78.313.747,16 €	%16,75	85.204.547,00 €	%19,70	6.890.799,84	%8,80
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	19.174.680,91 €	%4,10	19.975.393,00 €	%4,62	800.712,09 €	%4,18
Azokak	3.950,00 €	%0,00	3.950,00 €	%0,00	- €	%0,00
Donostia Turismo	3.705.586,00 €	%0,79	3.876.153,00 €	%0,90	170.567,00 €	%4,60
La Sirena aterpetxea	449.413,89 €	%0,10	494.604,00 €	%0,11	45.190,11 €	%10,06
Uliako aterpetxea	303.085,44 €	%0,06	331.581,00 €	%0,08	28.495,56 €	%9,40
Aterpetxeak: zuzendaritza eta administrazioa	114.073,47 €	%0,02	118.574,00 €	%0,11	4.500,53 €	%3,95
Ekonomi-garapena	1.117.302,11 €	%0,24	978.372,00 €	%0,23	- 138.930,11 €	-%12,43
Donostiako Sustapena S.A.	13.481.270,00 €	%2,88	14.172.159,00 €	%3,28	690.889,00 €	%5,12
Garraio publikoa	38.952.160,91 €	%8,33	48.309.404,00 €	%11,17	9.357.243,09 €	%24,02
Garraioaren arloko administrazio orokorra	185.113,05 €	%0,04	185.114,00 €	%0,04	0,95 €	%0,00
Bidaiaien taldekako hiri-garraioa	9.000,00 €	%0,00	1.509.000,00 €	%0,35	1.500.000,00 €	%16666,67
Beste bidaiaien garraioa	41.387,10 €	%0,01	6.000,00 €	%0,00	- 35.387,10 €	-%85,50
DBUS	38.716.660,76 €	%8,28	46.609.290,00 €	%10,78	7.892.629,24 €	%20,39
Azpiegiturak	20.083.239,24 €	%4,30	16.816.084,00 €	%3,89	- 3.267.155,24 €	-%16,27
Hiri-mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.520.181,47 €	%0,33	1.370.429,00 €	%0,32	- 149.752,47 €	-%9,85
Proiektu eta obrak	14.529.229,65 €	%3,11	11.390.650,00 €	%2,63	- 3.138.579,65 €	-%21,60
Uraren hornidura: Añarbe	4.033.828,12 €	%0,86	4.055.005,00 €	%0,94	21.176,88 €	%0,52
Beste jarduketako ekonomiko batzuk	103.666,10 €	%0,02	103.666,00 €	%0,02	0,10 €	%0,00
Kontsumitzailearen informaziorako udal-bulegoa	103.666,10 €	%0,02	103.666,00 €	%0,02	- 0,10 €	-%0,00
JARDUKETA OROKORRA	50.448.118,50 €	%8,55	43.571.333,00 €	%8,35	- 6.876.785,50	-%13,63
Gobernu organoak	5.203.020,60 €	%1,11	6.061.958,00 €	%1,40	858.937,40 €	%16,51
Udal taldeak	3.233.637,01 €	%0,69	3.574.493,00 €	%0,83	340.855,99 €	%10,54
Gobernu organoak	1.587.184,57 €	%0,34	1.532.184,00 €	%0,35	- 55.000,57 €	-%3,47
Hiri-proiektuak	382.199,02 €	%0,08	955.281,00 €	%0,22	573.081,98 €	%149,94
Administrazio Orokorra	38.048.884,68 €	%8,14	29.926.576,00 €	%6,92	- 8.122.308,68 €	-%21,35
Komunikazioak	778.135,54 €	%0,17	808.275,00 €	%0,19	30.139,46 €	%3,87
Eraikinak	1.930.517,88 €	%0,41	2.074.702,00 €	%0,51	144.184,12 €	%7,47
Informatika	7.895.862,68 €	%1,69	7.581.828,00 €	%1,75	- 314.034,68 €	-%3,98
Ekialdeko Distritua	761.088,11 €	%0,16	1.552.234,00 €	%0,36	791.145,89 €	%103,95
Lehendakaritza	1.214.044,05 €	%0,26	1.243.291,00 €	%0,29	29.246,95 €	%2,41
Agiritegia	707.808,41 €	%0,15	737.943,00 €	%0,17	30.134,59 €	%4,26
Giza baliabideak	2.983.561,49 €	%0,64	3.329.853,00 €	%0,77	346.291,51 €	%11,61
Idazkaritza nagusia eta lege zerbitzuak	1.207.690,78 €	%0,26	1.181.554,00 €	%0,27	- 26.136,78 €	-%2,16
Barne zerbitzu orokorrak	2.098.912,23 €	%0,45	2.470.699,00 €	%0,57	371.786,77 €	%17,71
Itzulpen bulegoa	397.034,42 €	%0,08	416.615,00 €	%0,10	19.580,58 €	%4,93
Ibilgailuak	812.321,42 €	%0,17	842.704,00 €	%0,19	30.382,58 €	%3,74
Ekipamendu-plana	6.896.970,60 €	%1,48	2.940.216,00 €	%0,68	- 3.956.754,60 €	-%57,37
Udal Informazio Unitatea	556.917,02 €	%0,12	551.698,00 €	%0,13	- 5.219,02 €	-%0,94
Herritarren parte-hartzea	3.507.560,27 €	%0,75	910.841,00 €	%0,21	- 2.596.719,27 €	-%74,03
Herritarrenganako arreta	1.982.901,02 €	%0,42	2.248.782,00 €	%0,52	265.880,98 €	%13,41
Zeharkako zerbitzuen koordinazioa	- €	%0,00	92.486,00 €	%0,02	92.486,00 €	%0,00
Hauteskundeak	40.000,00 €	%0,01	40.000,00 €	%0,01	- €	%0,00
Ezustekoak	4.277.558,76 €	%0,92	902.855,00 €	%0,21	- 3.374.703,76 €	-%78,89
Finantza eta zerga-administrazioa	7.196.213,22 €	%1,54	7.582.799,00 €	%2,00	386.585,78 €	%5,37
Politika ekonomikoa eta fiskala	3.112.260,04 €	%0,67	3.220.444,00 €	%0,74	108.183,96 €	%3,48
Tributu kudeaketa	4.083.953,18 €	%0,87	4.362.355,00 €	%1,00	278.401,82 €	%6,82
ZOR PUBLIKOA	15.881.831,52 €	%3,40	14.496.943,00 €	%3,35	- 1.384.888,52	-%8,72
Zor publikoa	15.881.831,52 €	%3,40	14.496.943,00 €	%3,35	- 1.384.888,52	-%8,72
GUZTIRA	467.446.690,90 €	%100	432.540.636,00 €	%100	- 34.906.054,90 €	-%7,47
Giza eskubideak	907.007,03 €	%0,19	942.942,00 €	%0,22	35.934,97 €	%3,96
Kultur aniztasuna	466.961,00 €	%0,10	479.775,00 €	%0,11	12.814,00 €	%2,74

% 100etik gorako hazkundeak: *Bidaiarien taldekako hiri garraioa* (% 16.666,67), *Hiri proiektuak* (% 149,94) eta *Ekialdeko distritua* (% 103,95).

Gainera, bi programa berri sortu dira: *Mugikortasun bertikala* eta *Zeharkako zerbitzuen koordinazioa*.

Hazkunde handia izan dute, halaber, % 20 eta % 100 artekoa, *Polloek* (% 47,82), *Kirolek: Zuzendaritza eta Administrazioa* (% 33,33), *Saneamenduak* (% 25,03) eta *Dbusek* (% 20,39),

Gehien jaitsi diren programak, % 25etik gorako murrizketak izan baitituzte, hauek dira: *Beste bidaiarien garraioa* (-% 85,50), *Ezustekoak* (-% 78,89), *Herritarren parte hartzea* (-% 74,03), *Anoeta Kiroldegia* (-% 64,52), *Eskailerak, arrapalak eta igogailuak* (-% 58,54), *Ekipamenduen plana* (-% 57,37), *Zaharren etxeak* (-% 48,94), *Etxebizitza* (-% 45,08), *Kirol instalazioak* (-% 41,61), *Erretiroagatiko primak* (-% 34,77).

2020KO INBERTSIOAK

2020an, aurreikusita dago **69.464.283,00 euroko inbertsioak egitea**. 2019an 115.267.140,00 euroko inbertsioak onetsi ziren; beraz, **% 39,74ko murrizketa** egingo da, eta bertan biltzen da udal aurrekontuen jaitsiera. Hain zuzen, udal aurrekontuak 34.906.054,90 euro jaitsi dira, lehen aipatu bezala, eta inbertsioak 45.802.857,34 euro jaitsiko dira.

Aurrekontu programen arabera, inbertsio handienak hemen egingo dira: *Hirigintza* (% 16,97), *Proiektuak eta obrak* (% 13,06), *Etxebizitza* (% 12,63) *Anoeta Kiroldegia* (% 11,13), eta *Dbus* (% 10,05).

Eskura dagoen informazioarekin, ezin da sakondu aurrekontu inbertsioek duten garrantzian eta generoan duten eraginean; beraz, etorkizunean aurreikusitako inbertsioei buruzko informazio gehiago jaso nahiko genuke: inbertsioa egingo den beharra deskribatzea, eragina izango duen xede taldea sexuaren arabera bereiztea, baita inbertsio batzuk ala besteak onesteko lehentasun irizpideei buruzko informazioa ere.

Aurrekontu programak	2020	
	Total	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	29691817	42,74%
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	868.248,00 €	1,25%
Udaltzaingoa	65.248,00 €	0,09%
Esailerak, arrapalak eta igogailuak	100.000,00 €	0,14%
Mugikortasun bertikala	315.000,00 €	0,45%
Hiri mugikortasuna	288.000,00 €	0,41%
Prebentzio eta su-itxaltze zerbitzua, eta sorospena	100.000,00 €	0,14%
Etxebizitza eta Hirigintza	25.021.133,00 €	36,02%
Hirigintza	11.788.200,00 €	16,97%
Etxebizitza	8.776.001,00 €	12,63%
Eraikuntzen birgaitzea	2.610.000,00 €	3,76%
Bide publikoak	480.000,00 €	0,69%
Zolaketa eta afaltatzea	1.366.932,00 €	1,97%
Komunitate-ongizatea	3.136.500,00 €	4,52%
Saneamendua	1.584.000,00 €	2,28%
Ura	517.500,00 €	0,74%
Bide eta Etxaurren garbiketa	50.000,00 €	0,07%
Polloe	850.000,00 €	1,22%
Herri argiteria	135.000,00 €	0,19%
Ingurumena	665.936,00 €	0,96%
Parke eta lorategiak	175.000,00 €	0,25%
Artikutza	22.000,00 €	0,03%
Iraunkortasuna	315.000,00 €	0,45%
Hondartzak	153.936,00 €	0,22%
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK	50.000,00 €	0,07%
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena	50.000,00 €	0,07%
Berdintasuna	50.000,00 €	0,07%
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	16.106.629,00 €	23,19%
Hezkuntza	430.875,00 €	0,62%
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	370.000,00 €	0,53%
Udalaren musika eta datza eskola	60.875,00 €	0,09%
Kultura	1.069.375,00 €	1,54%
Kultura: zuzendaritza eta administrazioa	430.000,00 €	0,62%
Tabakalera	500.000,00 €	0,72%
Kultura: sustatzea eta bultzatzea	139.375,00 €	0,20%
Kirola	14.606.379,00 €	21,03%
Donostia Kirola	715.000,00 €	1,03%
Kirol instalakuntzak	6.156.641,00 €	8,86%
Anoeta Kiroldegia	7.734.738,00 €	11,13%
JARDUKETA EKONOMIKOAK	17.935.301,00 €	25,82%
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	185.000,00 €	0,27%
Donostia Turismo	25.000,00 €	0,04%
Albergue de Ulla	10.000,00 €	0,01%
Ekonomi-garapena	150.000,00 €	0,22%
Garraio publikoa	8.480.301,00 €	12,21%
Transporte colectivo urbano de viajeros/as	1.500.000,00 €	2,16%
DBUS	6.980.301,00 €	10,05%
Azpiegiturak	9.270.000,00 €	13,34%
Hiri-mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	200.000,00 €	0,29%
Proiektu eta obrak	9.070.000,00 €	13,06%
JARDUKETA OROKORRA	5.680.536,00 €	8,18%
Gobernu organoak	765.000,00 €	1,10%
Gobernu organoak	200.000,00 €	0,29%
Hiri proiektuak	565.000,00 €	0,81%
Administrazio Orokorra	4.915.536,00 €	7,08%
Edificios	60.000,00 €	0,09%
Informatika	366.000,00 €	0,53%
Presidencia	1.330.000,00 €	1,91%
Barne zerbitzu orokorrak	500.000,00 €	0,72%
Itzulpen bulegoa	313.500,00 €	0,45%
Ibilgailuak	35.000,00 €	0,05%
Ekipamendu-plana	30.000,00 €	0,04%
Imprevistos	2.281.036,00 €	3,28%
GUZTIRA	69.464.283,00 €	100,00%


7. AZTERTUTAKO PROGRAMAK

108 aurrekontu programetatik 40 (% 37) zehatzago aztertu dira. Programa horiek **udal aurrekontuaren % 60,49 dira.** Nahiz eta aztertutako aurrekontu programen kopurua pixkanaka hazten ari den, garrantzitsua da azpimarratzea programa horiek genero garrantzi handiagoa dutelako hautatu direla.

Azttertutako aurrekontu programak	2020	%
Udaltzaingoa	24.789.792,00 €	%5,73
Mugikortasun bertikala	315.000,00 €	%0,07
Hiri mugikortasuna	8.775.134,00 €	%2,03
Hirigintza	16.549.213,00 €	%3,83
Donostiako Etxegintza	20.528.662,00 €	%4,75
Bide publikoak	2.018.287,00 €	%0,47
Herri argiteria	4.147.331,00 €	%0,96
Parke eta lorategiak	7.231.461,00 €	%1,67
Hondartzak	3.253.704,00 €	%0,75
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	802.779,00 €	%0,19
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.119.212,00 €	%0,95
Lankidetzeta eta garapenerako hezkuntza	1.837.288,00 €	%0,42
Donostia Lagunkoia	98.000,00 €	%0,02
Apartamentu tutelatuak	1.699.518,00 €	%0,39
Gizarte abegi etxea	1.239.682,00 €	%0,29
Gizarteratzea	3.285.172,00 €	%0,76
Adin txikikoen prebentzioa eta familia	3.144.451,00 €	%0,73
Adineko pertsonen sustapena	359.051,00 €	%0,08
Zaharren egoitzak	908.471,00 €	%0,21
Etxez-etxeko laguntza	9.896.937,00 €	%2,29
Gizarte larrialdietarako laguntzak	2.378.355,00 €	%0,55
Berdintasuna	1.004.374,00 €	%0,23
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	7.274.350,00 €	%1,68
Udalaren musika eta dantza eskola	4.500.154,00 €	%1,04
Heziketarako programak	287.249,00 €	%0,07
Giza eskubideak	942.942,00 €	%0,22
Kultur aniztasuna	479.775,00 €	%0,11
Kulturako administrazio orokorra: Donostia Kultura	30.947.231,00 €	%7,15
Udalaren musika eta datza eskola (Liburutegia)	166.016,00 €	%0,04
Udalaren musika eta datza eskola (Txistulariak)	643.801,00 €	%0,15
Gazteria	2.631.402,00 €	%0,61
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	4.452.845,00 €	%1,03
Donostia Kirola	3.138.083,00 €	%0,73
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	9.468.893,00 €	%2,19
Donostia Turismoa	3.876.153,00 €	%0,90
Donostiako Sustapena S.A.	14.172.159,00 €	%3,28
DBUS	46.609.290,00 €	%10,78
Hiri-mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.370.429,00 €	%0,32
Proiektu eta obrak	11.390.650,00 €	%2,63
Herritarren parte-hartzea	910.841,00 €	%0,21
Azttertutako aurrekontu programak GUZTIRA	261.644.137,00 €	
2020ko aurrekontuak GUZTIRA	432.540.636,00 €	
%		60,49%

Hurrengo orrialdeetan, programa horietako bakoitza xehetasunez aztertuko badugu ere, ikus dezagun zer bilakaera izan duten eta zergatik, termino globaletan adieraz dezakegu aztertutako 40 programetatik 36 udal aurrekontuen batez besteko murrizketa zifratik (-% 7,47) gora daudela. Hortik behera hauek daude: *Herritarren parte hartzea* (-% 74,03), *Etxebizitza* (-% 45,08), *Proiektuak eta obrak* (-% 21,60) eta *Mantentzea eta hiri zerbitzuak: Zuzendaritza eta administrazioa* (-% 9,85).

Lau horiez gain, beste lau murriztu dira 2019.



urtearekiko: *Hirigintza* (-% 6,11), *Argiteria publikoa* (-% 2,31), *Ikastetxeen funtzionamendua* (-% 1,89), *Kirolak: Zuzendaritza eta Administrazioa* (-% 0,17).

Gainerako programen, % 32ren, zenbatekoak igo egin dira 2019. urtearekin alderatuta.

7.1. Babes eta sustapen sozialaren jarduketak

● BERDINTASUNA

Berdintasun programa, *Gizarte zerbitzuen eta sustapen sozialaren politikan jasotakoa*, kasu berezia da, zeren aurrekontuaren ia % 100 era batera edo bestera emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzera bideratzen da.

Berdintasunera bideratutako programa espezifiko bat dago 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak bere 14. artikuluan ezarritako **lege mandatu**a betez. Hau ezartzen du aipatutako artikulua:

<<Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.>>.

Berdintasun politiken ikuspegi bikoitzak proposatzen du baliabideak berdintasunera bideratzea espezifiki, baldin eta ekintza positiboaren politikak sustatzen badituzte, eta baliabideak beste programa batzuetara bideratzea zeharkakotasuna eta politika sektoriala lantzeko.

Programa honen zenbatekoa 1.004.374,00 eurokoa izango da 2020an. 2019arekin alderatuta (941.541,92 euro), **% 6,67 igo da** (62.832,08 euro) eta **udal aurrekontuen % 0,23 da**, 2019ko 0,20aren aldean. Komeni da pisu hau mantentzea edo igotzea hurrengo udal aurrekontuetan.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	499.993,00	49,78
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	326.381,00	32,50
4	Transferentzia arruntak	128.000,00	12,74
6	Inbertsio errealak	50.000,00	4,98
GUZTIRA		1.004.374,00	100,00

2. kapitulua

Berdintasunaren 2. kapitulua **2019an % 8,0 igo da**, zeren 302.130,93 eurotik 326.381,00 eurora pasatu da.

2. kapitulu osoa (226.99 partida), adierazi den bezala, berdintasunaren udal politika sustatzeko jardueretara bideratzen da, **eta gehien nabarmentzen diren gastuak emakumeak ahalduntzeko (2. kapituluaren % 34,5) eta indarkeria sexistaren aurka egiteko (% 24,5) ekintzetara bideratutakoak dira.**

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.99	Eraldatze feministarako jarduerak	224.430,00
226.99.01	Indarkeria sexistaren aurkako ekintzak	80.000,00
226.99.02	Ikerketa lana eta prestakuntza	6.000,00
226.99.03	Emakumeen ahalduntzea	112.730,00
226.99.04	Partaidetza prozesua hiriko puntu kritikoak hobetzeko	8.200,00
226.99.05	Erantzukidetasuna eta zaintza lantzeko ekintzak	2.500,00
226.99.07	Berdintasunaren III. Plana ezartzea eta sistematizatzea	15.000,00

Nabarmentzekoa da, halaber, 50.000.000 euroko 226.09 partida **azterlan teknikoetara bideratzen dena** (% 15,3). Azterlan hauetarako izango da: aholkularitza emateko generoaren araberrako eraginari buruzko aurretiazko txostenak egiteko, Emakumeen Etxearen eraginari buruzko ikerketa bat egiteko eta soldata arrakalari buruzko beste azterlan bat egiteko.

4. kapitulua

Transferentzia arruntei dagokienez, bi aurrekontu partida jasotzen dira; lehenengoan emakumeen elkarreentzako eta berdintasuna sustatzen duten elkarte mistoentzako dirulaguntzak sartzen dira eta, bigarrenean, Emakumeen Etxearen mantentzea, hitzarmen baten eta 46.000 euroko partida baten bidez.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
481.01	Dirulaguntzak irabazi asmorik gabeko erakundeei	82.000,00
481.02	Aparteko dirulaguntzak irabazi asmorik gabeko erakundeei	46.000,00
	Guztira, 4. kapitulua	128.000,00

Partida hauei esleitutako zenbatekoak aurreko urteetakoak bezalakoak dira.

6. kapitulua

Inbertsioen kapitulan, 30.000 euroko partida bat jaso da hiriko hainbat puntu kritiko hobetzeko eta 20.000 euroko partida bat Emakumeen Etxearen mantentzerako.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
601.01	Hiriko hainbat puntu kritiko hobetzea	30.000,00
622.99.01	Emakumeen etxea mantentzea	20.000,00
	Guztira, 6. kapitulua	50.000,00

Bi inbertsioak garrantzitsuak dira generoaren ikuspuntutik. Lehenengoak indarkeriaren prebentzioan zuzenean eragiten duelako, III. Planaren 3. esku hartze lerroan, *Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea* izenekoan. Bigarrenak, III. Planaren 6. esku hartze lerroan, *Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomiko* izenekoan, zuzenean eragiten duelako.

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeen Etxea emakume askoren eta askotarikoen topaketarako, prestakuntzarako, pentsamendurako

eta ekintzarako toki bat da, eta mugimendu feministak eta Donostiako Udalaren berdintasun departamentuak era mistoan eta partekatuan kudeatuta antolatzen da.

Donostiako Udalak Etxeari 258.317,12 euroko ekarpen ekonomikoa egiten dio. Zenbateko horretan sartzen da, aurreko urteetan ez bezala, eremu honen dinamizazioan lan egiten duten bi udal langileen kostua.

Donostiako Udalak Emakumeen Etxeari egindako ekarpena

1. Emakumeen Etxea Elkartearekin hitzarmena

Hitzarmena Emakumeen Etxea espazioa dinamizatzeko arratsaldetan	46.000,00
---	-----------

2. Langileak

Udaleko bi langile, bata lanaldi osoarekin eta bestea lanaldi erdiarekin	66.805,52
--	-----------

3. Ikastaroak, ahalduntze taldeak eta zerbitzuak

Autodefentsa ikastaroak	4.000,00
Mujeres por una vida libre de violencia	8.500,00
Kultura aniztasuneko taldea	8.750,00
Literatura taldeak: Irakurle Eskola Feminista eta Ventaneras	4.800,00
Etxeko langileen aholkularitza zerbitzua	4.950,00
Udako ikastaroak	2.478,50
Lege aholkularitza	4.950,00
Aholkularitza juridiko eta gizarte esku-hartzea	4.950,00
Biluzik Mundura – Sexualitate eta genero aholkularitza	7.425,00
Norbanakoaren jabekuntzarako gunea	9.900,00
Gizarte aholkularitza	3.190,00
“Iguálate” ikasketak homologatzeko zerbitzua	7.425,00
Aholkularitza laguntza taldea	4.840,00
Aniztasun funtzionala duten emakumeen taldea	9.900,00

3. Eraikinaren mantenua eta mobiliarioa

Gastu korrontea (telefonoa, garbiketa, fotokopiak, argindarra, komunitatea, konponketa txikiak)	45.515,12
Soinu ekipo berria	902,78

4. Komunikazioa

Argazkiak eta bideoak	2.857,85
Hilabeteko programak eta ikastaroak: diseinua eta maketazioa	3.660,25
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta maketazioa	3.737,10
Urteurren festaren catering-a	2.780,00

GUZTIRA	258.317,12
----------------	-------------------

Aurreko txostenetan jasotzen zen bezala, **beharrezkoa da Emakumeen Etxerako toki berri bat**, erraz iristeko modukoa, eta zerbitzuak zein jarduerak hartzeko instalazio egokiak dituen. 2. kapituluari jasotako

partidarekin, hori ezin da egin.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.		Oso handia 31 gehieneko 34ren gain
	Aurrekontu programek Berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa		1. L Gobernantza 2. L Zaintza erantzukideak 3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea 4. L Jaiak eta kultura ez sexista 5. L Ohitura osasuntsuak eta kirola 6. L Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa 7. L Autonomia eta norberaren boterea
Eragina gizarte kolektibo nagusietan		Adineko emakumeak Emakumezko helduak Neskak eta emakumezko nerabeak Behar bereziak dituzten emakumeak	
GENEROAREN ADIERAZLEAK	Dirulaguntzak	Diruz lagundutako proiektuen kop.	35
		Diruz lagundutako elkarten kop.	33
	Emakumeen etxea (2018-2019)	Bazkideak	1.300
		Bisitak/urtea	36.186
		Biluzik mundura	124
		Aholkularitza juridikoa eta esku hartze soziala	256
		Norbanakoaren jabekuntzarako gunea	330
		Etxeko langileentzako aholkularitza	93
		“Iguálate” ikasketak homologatzeko kanpaina	387
		Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak	49
		Aholkularitza, laguntza taldea	23
		Prestakuntza	588



- Pixkanaka handitzea aurrekontu programa honen pisua.
- Inbertsioen kapituluan sartzea Emakumeen Etxerako toki berrirako inbertsioak

● GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZA

Garapenerako Lankidetzeta eta hezkuntza programak, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* politikan txertatuak, guztira, 2020an 1.837.288,00 euro izango ditu, **udal aurrekontuaren % 0,42**. 2019an programak, guztira, 1.728.342,01 euro izan zituen (aurrekontuaren % 0,37); beraz, % 6,3 igo da.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	203.733,00	11,09
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	146.175,00	7,96
4	Transferentzia arruntak	1.487.380,00	80,95
GUZTIRA		1.837.288,00	100,00

Garapenerako programa bere jardueran generoaren ikuspegia ondoen integratzen duenetako bat da, zeren

kudeatzen duen zuzendaritzak Giza Garapen Jasangarrirako Lankidetzak eta Hezkuntza Gida Plan bat du, eta bertan zehazten da **genero ekitatea dela bere printzipio gidarietako bat, eta zeharkako lerroa dela emakumeen eta gizonen berdintasuna.**

2. kapitulua

Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzaren 2. kapitulua **mantendu egingo da 2020an** 146.175,00 euroan, **hau da, 2019ko kantitate berdina izango du.**

Garapenerako lankidetzak eta hezkuntzaren arloan sentsibilizazio proiektuetara bideratzen den 226.99 partidak 2019ko zenbateko berdina du: 109.350,00 €. Donostia Entremundos generoa nabarmentzeagatik gailentzen da.

4. kapitulua

Programa honen gasturik handiena 4. kapituluan dago, zeren 1.487.380,00 euro baititu **lankidetzak eta garapen proiektuak sustatzeko dirulaguntza eta hitzarmenatarako**, 2019an baino 100.001,45 euro gehiago.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
481.01	Lehia libreko lankidetzak dirulaguntzak	773.748,00
481.02	GEH Dirulaguntzak lehiaketa librea	331.607,00
481.03	Dirulaguntza zuzenak	170.948,00
481.04	Dirulaguntza Euskal Fondoari	158.738,00
481.05	Dirulaguntza zuzenak: Ekintza Humanitarioa eta Larrialdi laguntza	52.339,00
	Guztira, 4. kapitulua	1.487.380,00

481.01 partida da handiena, 773.748,00 euro bideratuko baitira **kanpoan lankidetzak proiektuak** diruz laguntzera. **Dirulaguntzen oinarri arautzaileek generoaren ikuspuntua integratzen duten berdintasunaren klausula espezifikoak dituzte** diruz lagundutako proiektuak planifikatu, gauzatu eta ebaluatzeko fase guztietan. 2019arekin alderatuta partida hau, adierazitakoagatik eraldatzailatzat jotzen dena, **% 9,9 igo da (70.000 euro).**

LANKIDETZA PROIEKTUAK 2019KO ONURADUNAK

ASOCIACIÓN	PROYECTO	MUJERES		HOMBRES		NO BINARIO		TOTAL
MEDICUSMUNDI GIPUZKOA	Apoyando el empoderamiento de las mujeres de Telica y Larreynaga en el Departamento de Leon en Nicaragua	438	72,9%	163	27,1%	0	0,0%	601
Mugen Gainetik	Promover la organización colectiva, el empoderamiento y la incidencia política en defensa del territorio y la conservación del medio ambiente mediante procesos de participación equitativa, Fase III.	196	46,6%	225	53,4%	0	0,0%	421
HAURRALDE FUNDAZIOA	Por el derecho a una vida libre de trata con fines de explotación sexual y laboral en el municipio de San Borja-Bolivia	3.856	63,7%	2.200	36,3%	0	0,0%	6.056
ASOCIACION CALCUTA ONDOAN, ONGD	Trabajando en red por la defensa de los DDHH y la violencia contra las mujeres en Bangalore, India. Fase 2	4.907	83,2%	993	16,8%	0	0,0%	5.900
FUNDACIÓN TAU FUNDAZIOA	Impulso a la seguridad y soberanía alimentaria con equidad, de familias migrantes del distrito 6 del municipio de Sucre	3	37,5%	5	62,5%	0	0,0%	8
Mugarik Gabe	Aportando al empoderamiento de las mujeres, contribuimos a la desconstrucción del sistema patriarcal	246	69,1%	110	30,9%	0	0,0%	356
FUNDACIÓN PAZ Y SOLIDARIDAD DE EUSKADI	Afianzando el proceso de empoderamiento personal, familiar, comunitario, político y económico de las mujeres indígenas originarias campesinas del municipio de San Pedro.	4.576	91,4%	428	8,6%	0	0,0%	5.004
FUNDACIÓN ALBOAN FUNDAZIOA	Mujeres dalits trabajadoras en el sur de la india: por la defensa de sus derechos a una vida libre de discriminación y violencias	8.316	85,7%	1.351	13,9%	32	0,3%	9.699
PROSALUS	Fortalecimiento de capacidades para la autonomía de las mujeres campesinas y su participación social y política. Microcuenca del Chotano, Cajamarca . Perú.	110	65,5%	58	34,5%	0	0,0%	168
Solidaridad para el Desarrollo y la Paz (SODEPAZ)	Defensa de los derechos de los/las presos/as políticos/as palestinos/as, de sus familias y de todas las personas en riesgo de detención a través de ayuda legal, formación y representación, con especial atención a la incidencia internacional.	422	64,5%	232	35,5%	0	0,0%	654
BRIGADAS INTERNACIONALES DE PAZ	Acompañamiento y presencia internacional para la protección integral de personas defensoras de derechos humanos y comunidades desplazadas en Colombia.	978	55,1%	798	44,9%	0	0,0%	1.776
Bakerako Lankidetz Batzarrea / Asamblea de cooperación por la paz	Promover la igualdad de género y empoderamiento socio-económico de las mujeres en el Territorio Ocupado Palestino	3.482	91,1%	341	8,9%	0	0,0%	3.823
FUNDACIÓN MUNDUBAT	"Impulsando la participación política de mujeres palestinas en la defensa de sus derechos"	1.830	88,7%	230	11,1%	3	0,1%	2.063
FUNDACIÓN MUNDUBAT	Promover la construcción de una sociedad con equidad de género en las zonas rurales de El Salvador	253	72,3%	94	26,9%	3	0,9%	350
TOTAL		29.613	80,3%	7.228	19,6%	38	0,1%	36.879

GKEen esku hartzearekin bereziki emakumeetan eragiten da; hala, kanpoko garapenerako lankidetzako proiektuen onuradunen % 80,3 da. Horren arrazoia da XX. mendeko 80. hamarkadatik hainbat ikuspegik gomendatzen dutela emakumeak jartzea garapenerako lankidetzaren programen erdigunean, zeren emakumeek pairatzen dituzte gehien pobrezia-ondorioak.

481.02 partidaren dirulaguntza lerroak, gure **lurraldean garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza proiektuetarako denak** ere berdintasun klausulak ditu, eta 2019ko deialdian onuradunen % 54,1 emakumea izan zen.

Partida hau ere **% 9,9 (30.000 €) igo da 2019. urtearekin alderatuta;** horrela, 331.607,00 euro izango ditu.

GARAPENERAKO SENSIBILIZAZIO ETA HEZKUNTZA PROIEKTUAK. 2019KO ONURADUNAK

ASOCIACIÓN	PROYECTO	MUJERES		HOMBRES		NO BINARIO		TOTAL
SE TEM Hego Haizea	Construyendo alternativas desde las trincheras: consumo crítico, responsable y Transformador desde una mirada feminista (CCRTF), una herramienta para Transformar la realidad.	99.061	53,0%	87.812	47,0%	0	0,0%	186.873
MEDICUS MUNDI GIPUZKOA	"Sexualitate, genero eta garapena" ikuspegi global batetik sustatuz.	371	69,2%	165	30,8%	0	0,0%	536
Emaus Gizarte Fundazioa	KARRIKAN	793	25,5%	2.313	74,5%	0	0,0%	3.106
Mugen Gainetik	"La Soberanía Alimentaria en las Sociedades Gastronómicas donostiarras. Fase II"	122	59,2%	84	40,8%	0	0,0%	206
Haurralde Fundazioa	Hacia un desarrollo global sostenible: estrategias de incidencia política para el avance en la igualdad, (ODS5) reducción discriminación (ODS 10) y visibilización del impacto del cambio climático (ODS 13) en mujeres y niñas y su interrelación con el ODS 1.Segunda Fase	3.856	62,6%	2.307	37,4%	0	0,0%	6.163
Mugarik Gabe	Bakea Eraikitzen duten Emakumeak III: memoria, sareak eta aitorzak	2.523	50,0%	2.423	48,0%	100	2,0%	5.046
Fundación ALBOAN	Mugetatik haratago II	1.411	54,2%	1.191	45,8%	0	0,0%	2.602
Saretuz sarea	Donostian aukerak daude # Zuk Erabaki	3.754	60,9%	2.414	39,1%	0	0,0%	6.168
Solidaridad para el Desarrollo y la Paz (SODEPAZ)	Muros: militarización y externalización de las Fronteras, y las Políticas de Exclusión.	2.290	58,8%	1.604	41,2%	0	0,0%	3.894
FUNDACIÓN ECONOMISTAS SIN FRONTERAS	Promoviendo la Economía Crítica y Solidaria para la Transformación Social FASE II	288	55,3%	233	44,7%	0	0,0%	521
FUNDACIÓN ECONOMISTAS SIN FRONTERAS	Promoviendo la Educación en Finanzas Éticas y Alternativas en Donostia. Fase III	260	52,5%	235	47,5%	0	0,0%	495
Fundación Mundubat	Tendiendo puentes: una mirada al Sáhara Occidental desde los derechos humanos.	22.579	58,1%	16.276	41,9%	3	0,0%	38.858
MUNDUBAT FUNDAZIOA	Por una Vida Libre de Violencias para las Mujeres en lo local y lo global	736	85,8%	111	12,9%	11	1,3%	858
TOTAL		138.044	54,1%	117.168	45,9%	114	0,0%	255.326

481.03 eta 481.04 partidak ere kanpoko lankidetzara proiektuetara bideratzen dira, Euskal Fondoarekin, Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoarekin (SEAD) eta SEADekin elkarlanean aritzen diren euskal elkarteekin sinatutako hitzarmenen bitartez. Lankidetzara atalak berdintasun irizpidea erabiltzen du Euskal Fondoak babestutako proiektuak aukeratzean.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-erakundearen analisia.	Oso handia 31 gehieneko 34ren gain		
	Aurrekontu programen berdintasunerako III. Planaren esku hartze larroekin duten erlazioa	6. L Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa 7. L Autonomia eta norberaren boterea		
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Helduak Haurrak eta nerabeak Behar bereziak dituzten pertsonak		
GENERO ADIERAZLEAK	2019ko dirulaguntzak	Diruz lagundutako Garapenerako Lankidetzara proiektuen onuradunak	% E	% 80,3
			% G	% 19,6
			% ez binarioa	% 0,1
		Diruz lagundutako garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza proiektuen onuradunak	% E	% 54,1
			% G	% 45,9
			% ez binarioa	% 0,0

● DONOSTIA LAGUNKOIA

Donostia Lagunkoia programak, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* politikan jasotakoak, 2020an, guztira, 98.000,00 euro izango ditu, **udal aurrekontuaren % 0,02**. 2019an, zenbatekoa 93.000 eurokoa izan da; 5.000 euro (% 5,38) igo da, beraz.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	0,00	0,00
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	98.000,00	100,00

GUZTIRA

98.000,00 100,00

Donostia Lagunkoia Donostiako Udalak sustatzen duen Hiri Plan bat da, eta arreta jartzen du biztanleriaren zahartzeak hiri bizitzako arlo guztietan planteatzen dizkigun erronketan. **Hiriaren adiskidetasuna hobetzea helburu orokortzat duten eta, horrela, adinekoen bizitza kalitatea, eta, bide batez, Donostiako gizarte osoarena, hobetu nahi duten proiektuak eta jarduerak biltzen ditu.** Horretarako, komunitate partaidetzarako prozesuak sortzen dira, pertsona horiek hiriaren bizitzan duten ahalmen handia txertatzeko.

Donostia Lagunkoiaren 4 ardatzak hauek dira:

- Espazio publiko integratzailea eta mugikortasun segurua eta irisgarria.
- Bizitza osorako etxebizitzak
- Zaintzen duen komunitate bat
- Bizitza ziklo berri baterako trantsizioa eta adinaren kudeaketa

Programa garrantzitsua da generoaren ikuspegitik, adinekoetan duen eraginarengatik, zeren horien artean emakumeak baitira gehiengoa, eta zaintzaren eta adinekoen partaidetzarekin duen erlazioarengatik.

Programaren guztikoa 2. kapituluko gastua da, horrela banakatzen dena:

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.03	Publizitatea eta propaganda	34.000,00
226.07	Laguntza teknikoa Lkaleak	15.000,00
226.10	Kanpoko enpresek egindako aparteko lanak	16.000,00
226.99.01	Garapena eta laguntza teknikoa	33.000,00

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisa.	Ez da definitu	
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	2. L Zaintza erantzukideak 3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea 5. L Ohitura osasuntsuak eta kirola 6. L Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa	
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak	
GENERO ADIERAZLEAK	Berdintasunerako partida espezifikoak	2020	0,00 €

● GIZARTE EKINTZA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Gizarte Ekintza programa: Zuzendaritza eta Administrazioak, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* politikan jasotakoak, 2020an, guztira, 802.779,00 euro izango ditu, **udal aurrekontuaren % 0,19**. 2019an 775.742,85 euro (% 0,17) izan zituen; beraz, 27.036,15 euro igo da (% 3,49).

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	481.147,00	59,94
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	32.352,00	4,03
4	Transferentzia arruntak	289.280,00	36,03
GUZTIRA		802.779,00	100,00

2. kapitulua

Gizarte Ekintzaren 2. kapitulua: Zuzendaritza eta Administrazioa % 23 igoko da 2020an; izan ere, 26.278,55 eurotik 32.352,00 eurora pasatuko da.

7.460,00 euroko 226.09 partidan, **2.460,00 euroko partida bat erreserbatu da emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Planaren ekintzak egiteko**. Aurreko urtearekin alderatuta, partida hau 2.540,00 euro jaitsi da.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.09	lkerketak eta lan teknikoak	7.460,00

4. kapitulua

4. kapituluan 481.01 partida bat jaso da **gizarte ekintzaren arloan jarduten duten irabazi asmorik gabeko elkarteei dirulaguntzak emateko**, 280.000 eurokoa, 2019ko kantitate berdina izango du, beraz.

ELKARTEEN TIPOLOGIA

Kop.	Giza eremua
51	Gaixotasunaren arloan
3	Adikzioen arloan
8	Gizarteratze eta etorkinen arloan
9	Adinekoen arloan
3	Emakumeen arloan
10	Haurren arloan
10	Gizarte harremanen sustapenaren arloan

Elkarte eta proiektu horiek zerikusi zuzena dute zaintzarekin, eta, beraz, genero aldetik duten garrantzia handia da. 2019an, dirulaguntza jaso zuten hiru elkarteek erlazio zuzena zuten emakumeekin.

Aurreko urteetan bezala, gomendagarria da berdintasunerako klausulak sartzea deialdi horretan, baita genero eraginaren analisi bat ere.

● GIZARTE ZERBITZUGUNEA

Gizarte Zerbitzugunea programak, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* politikan jasotakoak, 2020an, guztira, 4.119.212,00 euro izango ditu, **udal aurrekontuaren % 0,95**. 2019an 4.054.392,14 euro izan zituen (aurrekontuen % 0,87); beraz, 64.819,86 euroko (% 1,6) igoera izango du.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	3.711.135,00	90,09
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	408.077,00	9,91

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzaren funtsezko programa bat da, haren izateko arrazoia; izan ere, gizarte zerbitzuetako zentroetako langileen gastua biltzen du, eta zentro horiek dira gizarte zerbitzuetako euskal sistemara sartzeko bidea.

GIZARTE ZERBITZUGUNEAN ARRETA JASO DUTEN FAMILIAK

Gizarte zerbitzuguneak	Arreta jaso duten familiak		Arreta lehen aldiz jaso duten familiak	
	Kop.	%	Kop.	%
Alde Zaharra - Erdialdea	1.312	%8,82	339	%9,22
Amara	1.837	%12,34	439	%11,94
Larratxo - Altza	1.791	%12,03	363	%9,87
Gros - Egia	2.901	%19,49	709	%19,28
Antiguo	1.872	%12,58	435	%11,83
Erribera - Loiola - Martutene	1.604	%10,78	362	%9,84
Intxaurren	1.432	%9,62	222	%6,04
Bidebieta-Herrera	937	%6,30	173	%4,70
GLUZ (Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua)	1.197	%8,04	635	%17,27
Guztira 2018	14.883	%100,00	3.677	%100,00
Guztira 2017	14.600		3.381	
Hazkundera 17-18	%1,94		%8,75	

Ez dago sexuaren arabera bereizita arreta jaso duten familien daturik.

● HAURREN ETA FAMILIEN PREBENTZIOA

Haurren eta familien prebentzioa programak, *Gizarte zerbitzuak eta sustapen soziala* gastu politikan jasotakoak, 3.144.451,00 euro izango ditu 2020an, **udal aurrekontuaren % 0,73, 2019an baino 39.718,17 euro gehiago**; 3.104.732,83 eurokoa baitzen partida (aurrekontuaren % 0,66).

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	582.408,00	18,52
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.562.043,00	81,48
GUZTIRA		3.144.451,00	100,00

Genero Indarkeriako Emakume Biktimen Arreta Zerbitzua (GIEBAZ) maila funtzionalean txertatu da Prebentzioa, Haurrak eta Familia Zerbitzuan eta, beraz, haren aurrekontu programaren mende dago. **GIEBAZek indarkeria matxista jasan duten emakumeei ostaturia, harrera, diagnosia, orientazioa, laguntza psikologikoa eta premiazko laguntza ekonomikoak eskaintzen dizkie. Zerbitzu honek 172 emakumeri eman zien arreta 2018an**, eta honako baliabide hauek eman zizkien:

Laguntza psikologikoa	97
Laguntza soziojuridikoa	12
Aholkularitza eta informazioa	172
Larrialdietarako etxebizitzak (udalarenak)	10
GFAren etxebizitzak – Egonaldi labur, ertain eta luzeko harrera	5
Larrialdiko txekoa	13
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza (*)	12
Emakumeei lagun egitea	17

Kasu honetan, udal gizarte zerbitzuek Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak kudeatutako baliabideetarako sarbide moduan jarduten dute. Beraz, **Udalak alor horretan egiten duen ekarpen nagusia da emakume erabiltzaileei arreta emateko eta bideratzeko ardura duten langileena**, 1. kapituluaren jasotakoa eta gastu eraldatzailetzat jotakoa.

2. kapitulua

Prebentzioa, Haurrak eta Familia sailaren 2. kapitulua **2020an 14.318,21 euro igoko da**, 2.547.724,79 eurotik 2.562.043,00 eurora pasatuko baita.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
227.04	Kontratu soziokulturalak	2.502.323,00
227.04.01	Adikzioen tokiko planeko neurriak	86.685,00
227.04.02	Indarkeria matxistaren aurkako prebentzio plana	5.000,00
227.04.05	Arreta soziokultural eta psikosozial zerbitzua	1.443.138,00
227.04.09	Prestakuntza, aholkularitza eta esku hartze goiztiarra	967.500,00

2016tik **indarkeria matxista prebenitzeko programa bat sartu da**, 227.04.02 partida, eta haren oinarria da **esku hartze selektiboa** egitea gizarte zerbitzuek hautemandako arrisku egoeran dauden adingabeekin. 2018an eta 2019an, 10.000 euro esleitu zitzaizkion. **Aurten, 5.000 eurora murriztu da**. Berdintasunerako gastu eraldatzailea da.

Programa horretako 2. kapituluko beste jarduketak batzuk hainbat kontratu publikoren bidez egiten dira: babesgabetasun egoeran egoteko arriskuan dauden adingabeekin lan egiten duten komunitateko psikologoaren kontratua; esku hartze goiztiarraren kontratua, kasuak hautemateko programa batean oinarritutakoa; talde psikologiko eta sozial, eta hezkuntzako eta sozialaren kontratua, hau da bolumen handiena duena (1.437.967,14 euro) eta gazteen artean drogen kontsumoa eta mendekotasun digitalak prebenitzearekin lotutako bi kontratu.

● ADINEKOEN SUSTAPENA

Adinekoak sustatzeko programaren, *Gizarte zerbitzuak eta sustapen soziala* gastu politikan jasotakoaren, bitartez, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak lagundu egiten die udal instalazioetan jarduten duten adinekoen elkarteei edo beraien instalazioetan jarduten dutenei.

Programak **359.051,00 euro ditu**, udal aurrekontuaren % 0,08, 2019an baino 2.497,67 euro gehiago.

Orduan, 356.553,33 euro baitzituen eta pisu berdina zuen guztizkoaren gain.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	54.256,00	15,11
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	276.685,00	77,06
4	Transferentzia arruntak	28.110,00	7,83
GUZTIRA		359.051,00	100,00

2. kapitulua

Adinekoen sustapenaren 2. kapitulua **2019koaren parekoa da**, 276.685,00 eurokoa.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
227.04	Kontratu soziokulturalak	238.685,00
227.04.01	Zentroen dinamizazioa	150.960,00
227.04.02	Topalekuaren kudeaketa	87.725,00
227.25	+55 Agenda	6.111,00

Kapituluaren diru gehiena 227.04 partidan dago; haren helburua da kontratu soziokulturalak kudeatzea. Hain zuzen, **55 urtetik gorakoentzako aisia eta denbora libreko “+55” udal programa** kudeatzea, zahartze aktiboa sustatzeko eta Aieteko Topalekua zentroa kudeatzea helburu duena. **Horrek du garrantzi handiena genero ikuspegitik.**

2018an, 15.719 pertsonak parte hartu zuten 485 jardueratan. Tamalez, ez dago programa honen onuradunei buruzko daturik sexuaren arabera bereizita.

4. kapitulua

Programa horretan, laugarren kapitulan, Hurkoa fundazioarentzako, Gurutze Gorriarentzako eta Nagusilan-entzako dirulaguntza izendunak jasotzen dira. Horietako bakar batek ere ez du berdintasuneko klausula espezifikorik.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
481.02	Hitzarmena Gurutze Gorriarekin	9.280,00
481.03	Hitzarmena Nagusilan Boluntariotzarekin	9.280,00
481.04	Hitzarmenak Hurkoa fundazioarekin	9.550,00
	Guztira, 4. kapitulua	28.110,00

● ADINEKO PERTSONEN EGOITZAK

Adineko pertsonen egoitzak programa Zorroaga fundazioarentzako 2. kapituluko **908.470,70 euroko** partida batean zehaztatuta dago (udal aurrekontuen % 0,21) eta adineko pertsona autonomoentzat egoitza ekipamendu batean ostatu eta arreta zerbitzua ematera bideratuta dago.

Partida hori 2019ko aurrekontuetan jasotakoaren ia berdina da.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	908.471,00	100,00
GUZTIRA		908.471,00	100,00

Adierazi beharra dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren arteko akordioei jarraituz, Aldundia dela mendekotasuna duten pertsonen arretara bideratutako gastu publikoaren arduraduna, eta, Udala, adineko pertsona autonomoen gastuarena eta, berriki, mendekotasun maila txikia dutenen gastuarena (1.1. mendekotasun maila). Eskumenen banaketa hori adineko pertsonen zuzendutako aurrekontu programetan islatuta dago.

2. kapitulua

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
227.92	Autonomoak Zorroagako egoitza ekipamenduan	908.471,00
	Guztira, 2. kapitulua	908.471,00

Egoitza horretan 67 pertsona sartzen dira (banakako geletan edo gela bikoitzetan), eta 2018an beteta egon da. Dena den, ez dugu sexuen arabera bereizitako daturik. Zerbitzuaren eskariaren eta betetze tasaren inguruko datuak nahiko genituzke, sexuaren arabera bereiziak, zerbitzuaren egokitasuna generoaren ikuspegitik balioetsi ahal izateko.

	Adinekoentzako egoitzak
2018ko eskaera berriak	32
Itxaron zerrendan egonik plaza eskuratu dutenak	10
Atzera egitea eskaeran eta/edo bajak itxaron zerrendan	12
Plaza okupatuak guztira	67

● TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK

Tutoretzapeko apartamentuak programa, *Gizarte zerbitzuak eta sustapen soziala* gastu politikan jasotakoa, 2020an, **1.699.518,00 eurokoa izango da, udal aurrekontuen % 0,39**. 2019an, kantitatea 1.631.783,22 eurokoa izan zen, hau da, aurrekontuen 0,35; 67.734,78 euro (% 4,15) igo da.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	168.670,00	9,93
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	1.489.848,00	87,66
4	Transferentzia arruntak	41.000,00	2,41

2. kapitulua

2020an, programa horren 2. kapitulua 1.489.848,00 eurokoa da, 2019an baino 60.154,33 euro (% 4,2) gehiago izango ditu.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
227.92	Adineko pertsona autonomoentzako ostatua	1.001.712,00
27.92.01	Komunitate etxebizitzak	217.925,00
227.92.02	Balio anitzeko apartamentuak	118.339,00
227.92.06	Apartamentu sozialak: Berra	300.979,00
227.92.07	Fermín Calbetón kaleko apartamentuak	98.898,00
227.92.08	Zorroagako apartamentu sozialak	142.055,00
227.92.09	Zorroagako apartamentu sozialen amortizazioa	123.516,00
227.96	Apartamentu sozialak	296.266,00
227.96.01	EPVEko apartamentu sozialen atezaindegia	86.679,00
227.96.02	EPVEko apartamentu sozialen kudeaketa	209.587,00
227.99	Eguneko arreta adineko pertsonentzat	113.236,00

Programa hori adineko pertsona autonomoentzako etxebizitza sozialak mantentzeko gastuetara bideratuta dago. Kasu horretan, gainera, gorago azaldutako eskumen banaketari jarraiki, Udala Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendekotasuna duten adineko pertsonentzako baliabideetarako sarbide moduan aritzen da, kasu honetan, adibidez, mendekotasunerako laguntzetarako sarbidea eta egoitza ekipamenduetarako sarbidea da. Horrez gain, zuzenean kudeatzen ditu eguneroko lanetan laguntza behar duten adineko pertsona autonomoentzako beste ostatu baliabide batzuk. **Baliabide horietan 177 pertsona sartzen dira, eta 2018an 156 egon dira**, baina ez daukagu sexuaren arabera bereizitako daturik. Aurreko programan bezala, zerbitzuaren eskariaren, betetze tasaren eta onuradunak hautatzeko irizpideen inguruko datuak nahiko genituzke, sexuaren arabera bereizitakoak, generoaren ikuspegitik balioetsi ahal izateko.

TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK	2018ko PLAZAK
Berrako tutoretzapeko apartamentuak	Gehienezko plaza kop.: 39 (33 apartamentu, horietatik 6 erabilera bikoitzeko aukerarekin)
Zorroagako tutoretzapeko apartamentuak	Gehienezko plaza kop.: 27 (17 apartamentu, horietatik 10 erabilera bikoitzeko aukerarekin)
Elizaran tutoretzapeko apartamentuak	Gehienezko plaza kop.: 10 (8 apartamentu, horietatik 2 erabilera bikoitzeko aukerarekin))
Txara 2ko tutoretzapeko apartamentuak	Gehienezko plaza kop.: 18 (18 apartamentu)
Ategorrieta, Berio, Benta-Berri y Marrutxipiko tutoretzapeko apartamentuak	Gehienezko plaza kop.: 47 Ategorrieta. Gehienezko plaza kop.: 6 (4 apartamentu, 2 erabilera bikoitzeko aukerarekin). Berio. Gehienezko plaza kop.: 9 (8 apartamentu, 1 erabilera bikoitzeko aukerarekin). Benta-Berri. Gehienezko plaza kop.: 6 (3 apartamentu bikoitz). Marrutxipi. Gehienezko plaza kop.: 28 (14 apartamentu erabilera bikoitzeko aukerarekin).
Monseko etxebizitza komunitarioak	36 plaza (guztiak erabilera bikoitzeko aukerarekin).

	Tutoretzapeko Apartamentuak
2018ko eskaera berriak	56
Itxaron zerrendan egonik plaza eskuratu dutenak	17
Atzera egitea eskaeran eta/edo bajak itxaron zerrendan	15
Plaza okupatuak guztira	156

● ETXEZ ETXKO LAGUNTZA

Etxez Etxeko Laguntza programa, *Gizarte zerbitzuak eta sustapen soziala* gastu politikan jasotakoa, nabarmen hazi da 2020an, 9.166.265,08 eurotik (udal aurrekontuen % 1,96) **9.896.937,00 eurora pasatu baita** (aurrekontuen % 2,29); **730.671,92 euroko igoera izango du (% 7,97).**

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	100.561,00	1,02
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	9.796.376,00	98,98
GUZTIRA		9.896.937,00	% 100,00

2. kapitulua

2019an programa honen 2. kapitulua 9.070.006,99 eurokoa izan zen, 2020an 9.796.376,00 eurora igoko da, **% 8 igoko da, beraz**. Igoera hori mendekotasun mailaren bat edo beharren bat duten pertsonentzako **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (EELZ) emateko kontratuari** lotuta dago. Zerbitzu hori programaren 2. kapitulu ia osoa da (9.796.376,00 euro).

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
227.21.01	Etxez etxeko laguntza	9.792.876,00
227.21.02	Etxez etxeko edo komunitateko beste zerbitzu batzuk	1.500,00
	Guztira, 2. kapitulua	9.796.376,00

Zerbitzu hori norberari bere etxean ematen zaio, norberaren zaintzan eta etxearen zaintzan laguntzeko helburuarekin. Lanak egiteko eta/edo zaintza emateko zailtasunen bat duten norbanakoentzako eta familientzako da, baita zaintzaileari atsedena emateko ere.

2018an 856 eskaera berri egin ziren Etxez Etxeko Zerbitzurako eta, **guztira, 2.352 onuradun izan ziren, horien % 65,39 (1.538) emakumeak.**

Arreta emandako pertsonen artean emakumeen ehunekoa handiagoa da, zeren 75 urtetik gorako adin tarteak pisu handiagoa du arreta emandako pertsona guztien gain, baita Donostiako 80 urtetik gorako adinekoen % 68 emakumea delako ere.

EELZak 2018an arreta eman zien pertsonak

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	%
< 65 urte	303	300	603	%25,64
65 – 74 urte	133	89	222	%9,44
75 – 84 urte	438	209	647	%27,51
85 urtetik gora	664	216	880	%37,41
Guztira	1.538	814	2.352	%100,00
%	%65,39	%34,61	%100,00	

Arreta emandako gehienak emakumeak dira, baina enpresaren zerbitzu esleipendunak kontratatutako langile gehienak ere emakumeak dira, oso kolektibo feminizatua baita.

Horregatik, funtsezko zerbitzua da generoaren ikuspegitik, beraz, izandako igoera positiboki baloratzen da, eragin hirukoitza baitu: lehena, zaindutako pertsonengan duena, kalitatezko zerbitzuaz gozatu baitezakete; bigarrena, langileengan duena; eta hirugarrenkoa, EELZk egiten ez dituen lanak beren gain hartu beharko lituzketenengan duena, askotan etxean eta ordainsaririk gabe egiten baitituzte, eta, jakitun gara, gehienetan emakumeek hartuko lituzketela beren gain.

Bestalde, azken urteetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu du bere gain mendekotasuna duten pertsonen emandako EELZ orduen kostu publikoa; aldez, Udalak hartu du bere gain pertsona autonomoei emandakoen kostua. Horrela, enpresa esleipendunarekiko kontratua Udalak kudeatzen duen arren, GFAk hartu du bere gain gastuaren zati handi bat. Hori udal aurrekontuan islatzen da, diru sarrerei dagokion atalean. Dena den, bi erakundeen arteko akordioak betez eta 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuen ingurukoa betez, EELZren eskumena Udalarena da, eta, horregatik, Foru Aldundiaren ekarpena pixkanaka jaitsi da azken urteetan, eta aurreikusi da joerak jarraitu egingo duela.

EELZren magnitude nagusien bilakaera, 2015 eta 2018 artean

	2015	2016	2017	2018
Prezioa/zerbitzu ordu	20,41	20,61	21,47	21,47
Eskaera berriak	538	612	588	856
Arreta jaso duten etxeak	1.539	1.556	1.540	1.688
Arreta orduak	402.338,25	404.913,25	397.792,25	438.824,25
Udalaren ekarpena	3.046.637,13	3.281.897,20	3.939.415,64	4.789.835,87
Foru Aldundiaren ekarpena	4.145.740,01	3.990.916,32	3.504.524,70	3.520.065,17
Erabiltzaileen ekarpena	1.066.425,23	1.115.023,01	1.138.010,28	1.188.081,17
Gastua guztira	8.258.802,37	8.387.836,53	8.581.950,62	9.497.982,21

Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017-2019 aldian EELZ batera finantzatzea adostu dute. Hobetzeko

ildo batzuk ezarri dira, eta horien artean nabarmendu behar da **erabiltzaileen ordainketa tarteak murriztuko direla**. Horrela, asmoa da zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzea, laguntzen beste modalitate batzuekin, adibidez, laguntza pertsonala emanda.

Adostutako hobekuntza ildoak:

1. Erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoa izatea (prezio publikoa) zerbitzu orduko 14 eurokoa, edo gutxiagokoa.
2. Arreta egutegia urtearen 365 egunetara zabaltzea.
3. Gehieneko ordu intentsitatea 4 ordura zabaltzea.
4. Premiazko sarbide modalitatea ezartzea.
5. Zerbitzuaren beste modalitate batzuk ezartzea (gaueko zaintza, familiako zaintzaileen atsedena, konpainia soziala eta abar) eta adineko pertsonen hainbat kolektiboren estaldura handitzea (gaixotasun mentalak, desgaitasuna duten pertsonak, beren kargu adingabeak dituzten familiak).

EELZ-REN ORDUKO PREZIOA KOORDAINTZEKO PREZIO PUBLIKOEN ALDAKETA

Gaur egungo orduko prezioa erabiltzaileentzat	2016ko orduak	%	Orduko prezio berria erabiltzaileentzat
0,00	11.748,50	% 2,9	0,00
0,28	113.208,00	% 28,0	0,25
0,75	42.621,50	% 10,5	0,50
1,50	56.380,50	% 13,9	1,00
2,81	75.750,50	% 18,7	2,50
4,50	42.480,25	% 10,5	4,00
6,57	32.066,75	% 7,9	6,00
9,00	10.249,00	% 2,5	8,00
9,76	6.753,00	% 1,7	9,00
11,84	5.429,25	% 1,3	10,50
13,92	296,25	% 0,1	12,50
16,00	7.848,50	% 1,9	14,00
Guztira	404.832,00	% 100,0	

Iturria: Gizarte ekintza

● GIZARTE LARRIALDIARAKO LAGUNTZAK

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak programa, *Gizarte zerbitzuak eta sustapen soziala* gastu politikan jasotakoa, 2020an, 2.378.355,00 eurokoa izango da, **udal aurrekontuen % 0,55**.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
4	Transferentzia arruntak	2.378.355,00	100,00
GUZTIRA		2.378.355,00	100,00

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bidez, aldizkakoak ez diren dirulaguntzak ematen zaizkie ohiko nahiz ezohiko gastu zehatzei aurre egiteko adina baliabiderik ez duten pertsonen, gizarte bazterketari aurre egiteko edo bazterketa hori prebenitu, saihestu edo arintzeko.

2018an, baliabide horrek 2.878 eskaera izan zituen. Eskaera horietatik, 2.534 familiak (% 88,0k) eskuratu zituzten Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, guztira, **4.539 onuradun**. **Laguntzen titularren % 67,25 emakumea zen**.

Familiak	Emakumeak	Gizonak	Guztira	%
25 urtetik beherakoak	23	14	37	%1,46
25-45 urte	482	215	697	%27,51
45-65 urte	545	350	895	%35,32
65 urtetik gorakoak	709	196	905	%35,71
Guztira	1.759	775	2.534	%100,00
%	%67,25	%32,75	%100,00	

● GIZARTE HARRERA ZENTROA

Gizarte harrera zentroa programak, *Gizarte zerbitzuak eta sustapen soziala* gastu politikan jasotakoak, 2020an, **1.239.682,00 euro** izango ditu, hau da, **aurrekontuen % 0,29**; beraz, 46.991,77 (% 3,94) igo da 2019. urtearekin alderatuta, orduan, 1.192.690,23 euro baitzituen (aurrekontuen % 0,26).

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	790.602,00	63,77
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	449.080,00	36,23
GUZTIRA		1.239.682,00	100,00

2. kapitulua

2. kapitulua 449.080,00 eurokoa da, 2019an baino 8.934,08 euro gehiago. Horren barruan sartzen dira **Mons pasealekuan dagoen etxegabeentzako 40 plazako harrera zentroa mantentzeko gastuak**. Etxegabeek gehienez 3 gau pasa ditzakete bertan. “Eskakizun txikiko” zentroa da, hau da, erabiltzaileek ez dute baldintzarik bete behar, baina esku hartze sozialik ere ez da egiten. 2018an 1.926 pertsona desberdinen 3.122 sarrera izan ziren. Horietako 996 lehen aldiz joan ziren zentrora. Guztira, 13.909 ostatu gau izan dira; beraz, batez besteko okupazioa eguneko 38,1 pertsonakoa izan da, eta batez besteko okupazio tasa % 95,3koa. **Batez ere gizonek erabiltzen dute zerbitzua (% 82,9).**

Komenigarria izango litzateke informazio gehiago izatea emakume etxegabeei buruz, adibidez, zergatik ez diren baliabide horretara joaten, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak jarri beharko lirateke.

● GIZARTERATZEA

Gizarteratzea programa, *Gizarte zerbitzuak eta sustapen soziala* gastu politikan jasotakoa, **2020an 187.090,20 euro igoko da (% 6,03)**, 2019ko 3.098.081,80 eurotik (aurrekontuen % 0,66) 3.285.172,00 eurora pasatuko baita (udal aurrekontuen % 0,76).

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	461.948,00	14,06
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.069.372,00	62,99
4	Transferentzia arruntak	753.852,00	22,95
GUZTIRA		3.285.172,00	100,00

Gizarte Ongizateko beste aurrekontu programa batzuekin gertatzen den bezala, zerbitzu honen gakoa zerbitzua ematen duten udal langileak dira; eskaintzen dituzten baliabideak, berriz, beste erakunde edo beste udal zerbitzu batzuetatik datoz, gehien-gehienak.

2. kapitulua

2. kapituluaren 145.839,48 euro (% 7,6) gehiago daude; izan ere, 1.923.532,52 eurotik 2.069.372,00 eurora pasatu da.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.09	Ikerketak eta lan teknikoak	7.000,00
227.04	Kontratu soziokulturalak	1.723.036,00
227.04.00	Gaueko arreta zentroa (laguntza teknikoa)	500.436,00
227.04.01	Gizarteratze hitzarmenak (konpainia programa)	236.900,00
227.04.02	Larrialdi sozialetan esku hartzea	472.500,00
227.04.04	Eguneko arreta zentroa	326.200,00
227.04.05	Tutoretzapeko etxebizitzaren kudeaketa	187.000,00

Gizarteratze programako 2. kapituluaren barruan, mantentze gastuak eta larrialdietarako eta gizarteratzeko zentroekin eta programekin zerikusia duten hainbat kontratu daude sartuta, baita zenbait laguntza ekonomiko ere.

Aurten, **7.000,00 euroko partida bat (226.09) sartu da** instituzioari buruzko ikerketa baterako, gastu eraldatzailea.

Gizarteratzeko funtsezko zerbitzuak dira **gizarteratzeko eta laneratzeko diagnostikoak eta baliabideak**. Diagnostiko sozio-laboral pertsonalizatuak Gizarte Zerbitzuguneetan egiten dira. **2018an, guztira, 103 fitxa sozio-laboral egin ziren; horietatik 31 emakumeek bete zituzten (% 30,1) eta 72 gizonen (% 69,9).** Diagnostikoa egitea da ibilbide sozio-laborala osatzeko lehen urratsa. Ibilbide horien barruan, Donostia Sustapenarekin lankidetzan, prestakuntzako edo/eta laneko baliabideak eskaintzen dizkiete egungo krisi ekonomikoari begira ahulenak diren taldeei: 45 urtetik gorako gizon-emakumeak, 30 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak, emakumeak, DSBE edo DSBL jasotzen dutenak, eta desgaitasuna dutenak.

Aurreko urteetan bezala mantentzen da **Lanbideak diruz lagundutako eta Donostia Sustapenak kudeatutako Enpleguaren Tokiko Planaren esparruan enplegu programa**. Programa horren bidez, 2018an 33 pertsona kontratatatu ziren; horietatik 17 Donostiako gizarte zerbitzuen erabiltzaileak ziren, 8 emakume (% 47,1) eta 9 gizon (% 52,9).

Badira beste programa batzuk ere, deskribatu ditugun laneratzeko programa horien aurrekoak, xede dutenak lana aurkitzeko pronostiko baxuko pertsonen oinarritzko gaitasunak eskuratzea (**Elkarrekin programa**), oinarritzko gaitasun sozialak eskuratzea eta eguneroko bizitzarako gaitasunak eskuratzea (**Aurrera programa**) edo gaitasun pertsonalak eta sozialak eskuratzea, laneratzeko programetan sartu aurreko pauso gisa (**Bidean programa**). Hiru programa horien erabiltzaileak gehienbat gizonak dira (73 onuradunen % 76,7).

Programa espezifiko bat dago emakumeentzat zeinen helburua den ohitura eta gaitasun sozioprofesionalen eta pertsonalen prestakuntza eskaintzea. Tailer honetan gizarte bazterketaren egoeran edo arriskuan dauden eta aldaketa prozesuak aktibatu behar dituzten emakumeekin lan egiten da. Gehienbat, erlazio sozial gutxiko emakumeak dira, erreferentziako eta topaketarako gune propioak ez dituztenak eta gaitasun sozialak zein pertsonalak indartu behar dituztenak. 2018an 25 emakumek parte hartu zuten.

PROIEKTUAK	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Elkarrekin	5	17	22
Bidean (lan aurrekoa)	2	23	25
Emakumeen tailerra	25	0	25
Aurrera	7	16	23
Guztira	39	56	95
Kopurua (%)	%41,05	%58,94	%100,00

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	- Zuzendaritza eta administrazioa: Ertaina. 22 gehieneko 34ren gain - Haurrak, adinekoen sustapena, etxez etxeko laguntza, gizarte zerbitzugunea, harrera zentroa, adinekoen zerbitzua: Handia. 26 gehieneko 34ren gain - Haurren eta familien prebentzioa: Handia. 28 gehieneko 34ren gain			
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	2. L Zaintza erantzukideak 3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea 4. L Jaiak eta kultura ez sexista 5. L Ohitura osasuntsuak eta kirola 6. L Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa 7. L Autonomia eta norberaren boterea			
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Haurrak eta nerabeak Behar bereziak dituzten pertsonak			
GENERO ADIERAZLEAK	Gizarteratzeko laguntza ekonomikoak	Gizarte larrialdirako laguntzak	% E	% 67,25	
			% G	% 32,75	
	Adinekoak	Etxez etxeko zerbitzua	% E	% 65,4	
			% G	% 34,6	
		Orain arte Gizarte Zerbitzuetako zentroetako erabiltzaileak ez diren adinekoei egindako bisitak	82 pertsona. Ez dago arreta eman zaien familiar daturik sexuaren arabera bereizita.		
			Adingabeen arreta eta zerbitzuak	Festei eta alkoholari buruzko kanpaina. Alkohol mailaren probako parte hartzaileak	% E
	% G	% 69,1			
	Gazteen lokaletako informazio eta prestakuntza programa	% E		% 0,0	
		% G		% 100,0	
	Programa: neurri alternatiboak edukitzeagatik edo kontsumitzeagatik	% E		% 24,6	
		% G		% 75,4	
	Programa: alkoholaren arriskua	% E		% 50,4	
		% G		% 49,6	
		% EA		%0,2	
	Prebentzio programak: Teknologia berriak hezkuntza esparruan erabiltzeko buruz. Profesionalak	% E		% 77,0	
		% G		% 23,0	
	Programa: adingabeak babestearen alorreko hautemate eta esku hartze goiztiarra	% E		% 42,5	
		% G	% 57,5		
	Programa: genero indarkeriaren biktimen arreta	Arreta emandako genero indarkeriaren biktimak	172		
	Programak: premiazko – larrialdietako arreta eta etxerik gabeko pertsonek arreta.	Gaueko Aterpea	% E	% 14,0	
			% G	% 86,0	
		Hestia eguneko zentroa	% E	% 8,7	
			% G	% 91,3	
	Gizarteratzea	Diagnosi soziolaboralak	% E	% 30,1	

			% G	% 69,9
		Gizarteratzeko eta laneratzeko baliabideak (Gizarte Ongizatearen eta Sustapenaren arteko baterako proiektuak). Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaile kontratatuak	% E	% 47,1
			% G	% 52,9
		Programa: konpainia eta sustapen soziala	% E	% 41,1
			% G	% 58,9
	Berdintasunerako III. Plana ezartzea	Berdintasunerako neurriak garatzeko barne koordinaziorako taldea.		
	Berdintasunerako partida espezifikoak	2019. Exekutatzeko maila	%	% 80,10
		2020	€	14.460,00 €



- Mantentzea aurreko urtean berdintasunerako partida espezifikoaren kantitateak.
- Inbertitzea gehien maskulinizatutako baliabideak neutralizatzen: baliabideak etxegabeentzat, erretirodunen etxeak.

7.2. Lehentasunezko ondare publikoen ekoizpena

● IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA

Ikastetxeen funtzionamendua programa, *Hezkuntzan* gastu politikan jasotakoa, 2020an, 7.274.350,00 eurora jaitsiko da; hala, udal aurrekontuen % 1,68 jasoko du. 2019an, partida honetarako 7.414.288,50 euro esleitu ziren, hau da, udal aurrekontuen % 1,59. Beraz, **139.938,50 euroko murrizketa izango du (-% 1,89).**

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	1.787.507,00	24,57
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	5.116.843,00	70,34
6	Inbertsio errealak	370.000,00	5,09
GUZTIRA		7.274.350,00	100,00

2. kapitulua

Ikastetxeen funtzionamendua programako 2. kapitulan 2020rako 5.116.843,00 euro esleitu dira. 2019an, 4.901.048,60 euro esleitu ziren; beraz, % 4,4 igo da.

Ikastetxeen funtzionamendua programaren barruan sartzen dira sare publikoko lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako eskola eraikinen mantentze lanak; besteak beste, bere gain hartzen ditu eraikin guztien garbiketa gastuak (3.437.498,60 euro), elektrizitate eta gas gastuak, konponketak eta obrak.

6. kapitulua

6. kapituluan, bi partida izendatu dira; bata, 330.000 eurokoa, ikastetxeak hobetzeko (Eusko Jaurlaritzarekin), eta bestea, 40.000 eurokoa, ikerketa eta proiektuetarako.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
622.99.01	Ikastetxeen hobekuntza (Eusko Jaurlaritzarekin)	330.000,00
643.99.01	Ikerketak eta proiektuak	40.000,00
	Guztira, 6. kapitulua	370.000,00

Programa honek ikastetxeetan egiten dituen inbertsioak garrantzitsuak dira generoaren ikuspegitik, eta zuzenean eragiten du III. Planaren 2. esku hartze lerroan, *Zaintza erantzukideak* izenekoan.



– Partida zehatz bat esleitzea jolasleku kohezitzaileetarako.

● HEZKUNTZA PROGRAMAK

Hezkuntza programak programa, *Hezkuntza* gastu politikan jasotakoa, 2020an **287.249,00 euroan mantenduko da**, hau da, **aurrekontuen % 0,07** esleitu da, 2019an baino 2.397,97 euro gehiago, orduan, 284.851,03 euro (% 0,06) esleitu baitziren.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	54.693,00	19,13
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	71.000,00	24,72
4	Transferentzia arruntak	161.286,35	56,15
GUZTIRA		287.249,00	100,00

2. kapitulua

2. kapitulua 2019an bezala mantenduko da, 71.000,00 euro izango baitira.

Berdintasunaren programa espezifikotarako aurreko urteetan txertatutako partidak mantendu dira. Zehazki, **25.000,00 euro bideratuko dira berdintasun programetara eta 20.000 euro genero indarkeria prebenitzera**, biak **gastu eraldatzailerat jo dira**.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.99	Bestelako gastuak	16.000,00
226.99.01	Berdintasun programa	25.000,00
226.99.02	Genero indarkeria prebenitzeko programa	20.000,00
226.99.03	Giza Eskubideak dibulгатzeko programa	10.000,00
	2. kapitulua, guztira	71.000,00

4. kapitulua

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
481.01	Ikastetxeetarako eta irakaskuntzarekin lotutako elkarreentarako dirulaguntzak	124.800,00
481.02	EHIGE Gurasoen Elkartea: Euskal Eskola Publikoaren Jaia	2.700,00
481.03	Ikertze: Hip Hip Hurri	6.916,00
481.04	Baikara: Proiektuak	20.000,00
481.05	Igeldoko eta Zubietako "Eskola txikientzako" dirulaguntza	6.870,00
	4. kapitulua, guztira	161.286,00

Hip Hip Hurri programa genero ikuspegitik garrantzitsua da, zeren proiektu horretan haurrentzako aisia jarduerak egiten dira, eta gastu eraldatzailatzat jotzen da.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ertaina 20 gehieneko 34ren gain		
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	2. L Zaintza erantzukideak 6. L Emakumeen parte hartze soziopolitikoak eta ekonomikoak 7. L Autonomia eta norberaren boterea		
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Haurrak eta nerabeak		
GENERO ADIERAZLEAK	Berdintasunerako partida espezifikoa	2019. Exekutatzeko maila	%	% 79,8
		2020	€	51.916,00

● GIZA ESKUBIDEAK

Giza Eskubideak programa, *Hezkuntza* gastu politikan jasotakoa, 2020an **942.942 eurora** igoko da, hau da, udal aurrekontuen % 0,22 esleituko zaio. **35.934,97 euroko igoera** izango du 2019. urtearekin alderatuta (% 3,96). Orduan 907.007,03 eurokoa izan zen, hau da, aurrekontuen % 0,19.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	236.350,00	25,06
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	595.366,00	63,14
4	Transferentzia arruntak	111.226,00	11,80
GUZTIRA		942.942,00	100,00

2. kapitulua

Giza Eskubideen programako 2. kapitulurako esleipena 2019ko ia berdina izango da, 596.035,03 eurotik 595.366,00 eurora pasatuko baita.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.99	Bestelako gastuak	515.409,00
226.99.01	Memoria historikoa	50.000,00

226.99.02	Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak	78.400,00
226.99.03	Zinemaldia eta Giza Eskubideak	158.847,00
226.99.04	Bakea eta elkarbizitza munduan	4.000,00
226.99.06	Oroitzapenerako ekintzak eta biktimen aitortza	36.500,00
226.99.07	Proiektuak beste erakunde batzuekin	172.662,00
226.99.08	Gerra Zibileko lekuak seinaleztatzea	15.000,00

2. kapituluaren barruan sartuta daude oroimen historikoa berreskuratzeko partida, bakean eta Giza Eskubideen errespetuan oinarritutako hezkuntza eta prestakuntza bultzatzeko eta normalizazio politikoari laguntzekoa.

226.99.02 *Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak* partidan **10.000 euro daude ekainaren 28ko LQTBO kanpainarako**, gastu eraldatzailatzat jotzen dena. Kanpaina honetarako aurreko urtean baino 6.000 euro gehiago esleitu dira.

Programa horretako jardueren artean, **Zinemaldia eta Giza Eskubideak**, jarduerak du hedapen handienetakoa. Jarduera hori Giza Eskubideen departamentuak antolatzen du Donostia Kulturarekin eta beste eragile batzuekin batera.

Giza Eskubideen departamentuak urteak daramatza Berdintasun departamentuarekin lanean. Berdintasunerako III. Plana aplikatzeko, beraz, haren programek, gehiago edo gutxiago, genero ikuspegia dute.

4. kapitulua

4. kapitulua 26.470,94 euro (% 31,2) igo da 2019. urtearekiko, 84.755,06 eurotik 111.226,00 eurora pasatu baita. Igoera 481.02 partida eta TBeri dirulaguntza emateko partida igotzeagatik gertatu da.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
481.01	Bakearen eta Giza Eskubideen proiektuetarako dirulaguntzak	50.300,00
481.02	Diru laguntza Aranzadiri, oroimen historikoa berreskuratzeko proiektuetarako	23.426,00
481.03	Euskal Herriko Unibertsitateari, giza eskubideen inguruko ikastarorako	22.500,00
481.06	TBERi dirulaguntza	15.000,00
	4. kapitulua, guztira	111.226,00

50.300 euroko partida bat sartu da **bakearen eta giza eskubideen arloko elkarteei dirulaguntzak emateko lerro baterako**. Lerro horrek **berdintasun klausulak ditu**.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Oso handia 29 gehieneko 34ren gain	
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	2. L Zaintza erantzukideak 3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea 6. L Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa 7. L Autonomia eta norberaren boterea	
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Helduak	
GENERO ADIERAZLEAK	Berdintasunerako partida espezifikoa	2019. Exekutatzeko maila	% 100,00
		2020	10.000,00 €

● KULTUR ANIZTASUNA

Kultur aniztasuna programa, *Hezkuntza* gastu politikan jasotakoa, 2020an **479.775 eurokoa izango da, hau da, udal aurrekontuen % 0,11 esleituko zaio**. Programa horren helburu nagusiak dira herritarrak sentsibilizatzea, bizikidetza sustatzeko eta arrazakeria eta xenofobia eragozteko, herritar berriei harrera egitea eta haien partaidetza soziala bultzatzea.

2019an, partida honetarako 466.961,00 euro esleitu ziren, hau da, udal aurrekontuen % 0,10. Beraz, **12.814 euroko hazkundera izan du (% 2,74)**.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	197.540,00	41,18
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	182.235,00	37,98
4	Transferentzia arruntak	100.000,00	20,84
GUZTIRA		479.775,00	100,00

2. kapitulua

2. kapituluaren esleipena 2019tik 2020ra 34.105 euro (% 23) igo da, 148.130,00 eurotik 182.235,00 eurora pasatu baita. Hazkundera Donostiar hiritartasun anitzak 227.04 partidari izango da.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.99.01	Sentsibilizazio kanpainak	28.000,00
226.99.03	Emakumearen gune interkulturala	10.000,00
226.99.04	Partaidetza	30.000,00
227.04	Donostiar hiritartasun anitzak	121.105,00

Programak emakumeentzako **partida espezifiko** bat du (226.99.03), **10.000,00 eurokoa, gastu eraldatzaile** bat jo dena eta Emakumeen Etxean topaketarako eta ahalduntzerako espazio bat dinamizatzeko balio duena, Berdintasun Unitatearekin elkarlanean.

4. kapitulua

4. kapitulua 30.000 euro (% 23,08) jaitsi da 2019arekiko; izan ere, ez dago errefuxiatu politikoentzako laguntzarako bideratutako 30.000 euroko partida.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
481.01	Kultur aniztasunari buruzko proiektuetarako dirulaguntzak	60.000,00
481.02	Zuzeneko beste diru laguntza batzuk	15.000,00
481.03	Dirulaguntza Camelamos Adiquerar ijito elkarteari	25.000,00
	4. kapitulua, guztira	100.000,00

Kultur aniztasunaren arloko irabazi asmorik gabeko elkarreentzako dirulaguntzek 60.000 euroko esleipena dute 2020an, 2019an bezala. Berdintasun klausulak dituzte oinarri arautzaileetan.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Oso handia 29 gehieneko 34ren gain	
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	6. L Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa 7. L Autonomia eta norberaren boterea	
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Helduak Haurrak eta nerabeak Behar bereziak dituzten pertsonak	
GENERO ADIERAZLEAK	Topaketarako eta ahalduztzeko espazioaren onuradun diren emakumeak (2017/18)	52	
	Berdintasunerako partida espezifikoak	2019. Exekututze maila	% 100,00
		2020	10.000,00 €

● DONOSTIA KULTURA

Donostia Kultura Donostiako Udalaren mendeko enpresa erakunde publiko bat da, udal politika kulturala bideratzen duena, eta herritarrei zenbait zerbitzu eskaintzen dizkiena, kulturarekin eta jai herrikoiekin lotuak, nortasun indibiduala eta kolektiboa osatzen duten adierazpenak baitira. Erakundearen beste helburu batzuk dira udalerriko ondare kulturala eta artistikoa mantentzea, sormenaren eta ekoizpenaren arloko bertako kultura ekimenak babestea, eta askotariko kultura, irekia eta tolerantzia sustatzea, besteak beste.

Donostia Kulturaren 2020rako aurrekontua 30.947.231,00 eurokoa izango da, 2019an baino 609.997,43 euro gehiago (% 2,01eko hazkundea); orduan, aurrekontua, guztira, 30.337.233,57 eurokoa baitzen. **Udal aurrekontuen % 7,34.** Diru sarreren atalean, Donostiako Udalaren ekarpena da diru iturririk garrantzitsuenak, 24.521.446,00 euro; eta haren atzetik daude espazioak alokatzeagatiko eta zerbitzuak emateagatiko ordainak eta beste erakunde batzuen dirulaguntzak.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	13.299.130,00	43,08
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	16.566.102,00	53,66
4	Transferentzia arruntak	641.863,00	2,08
6	Inbertsio errealak	430.000,00	1,15
8	Finantza aktiboak	10.136,00	0,03
GUZTIRA		30.947.231,00	100,00

Donostia Kulturak 2019an diseinatu du Berdintasunerako bere III. Plana zeinen ezarpena 2020an hasiko den eta parte hartzen jarraitzen du Donostiako Udalaren Berdintasunaren III. Planaren Koordinazio Batzorde Teknikoan.

Esparru horretan, azken urteetan partida espezifiko bat esleitu du Kontxako Estropadetako sariak berdintzeko. 2018an, sariak behin betiko berdindu ziren, eta partida finkatu egin da

Aurten, **berdintasunerako partida espezifiko hauek aurreikusi dira, guztiak gastu eraldatzailatzat jotakoak:**

- **Jaiak: 8.000,00 euroko** partida **San Tomas egunean emakumeen herri kirolen jarduerak antolatzeko.**
- **Musika. 15.000 euroko** partida, martxoaren 7rako, Emakumeen Nazioarteko Egunaren bezperarako, **Gure Ahotsak kontzerturako.** Sara Mansillak, Olatz Salvadorrek, Elena Setiének eta Izarok eskainiko dute kontzertu hori Victoria Eugenia Antzokian.

2018ko memoriaren arabera, urte horren amaieran, **Donostia Kulturak 103.568 bazkide zituen, 62.007 (% 59,9) emakume eta 41.561 gizon (% 40,1).** Antolatutako hainbat hilabeteko 763 ikastaroetako parte hartzeari dagokionez, 10.246 parte hartzaile izan ziren, **7.545 (% 73,6) emakumeak ziren** eta 2.701 (% 26,4) gizonak.

Datuak sexuaren arabera bereizita jasotzeko ahalegina egin den arren, ez dago erregistrorik lantegiak, hitzaldiak, kontzertuak edo erakusketak egiteko kontratatu diren pertsonen sexua zein den jakiteko. Komenigarria izango litzateke erregistro hori sortzea, emakume gehiago kontratatzeke eta aipatutako “kristalezko sabai kultural” hori hausteko.

Nolanahi ere, 2019rako aurreikusita dago erakundearen kontabilitate analitikoa hobetzea, zeharkako arloekin lotutako gastuaren analisisan laugarren aldagaia aplikatuz, horrela **genero inpaktu positiboa duten aurrekontu partidak** (berdintasunerantz aurrera egiteko eta desparekotasuna murrizteko lagungarriak direnak) identifikatu ahal izango dira.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ez da definitu		
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	4. L Jaiak eta kultura ez sexista 6. L Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa 7. L Autonomia eta norberaren boterea		
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Helduak Haurrak eta nerabeak		
GENERO ADIERAZLEAK	Erabiltzaileak	DK-ko bazkideak	% E	% 59,9
			% G	% 40,1
		2018/2019 DK ikastaroetako ikasleak	% E	% 74,2
			% G	% 25,8
	Liburutegi zerbitzua	2018ko bazkideak	% E	% 54,3
			% G	% 45,7
		2018ko bazkide aktiboak	% E	% 57,3
			% G	% 42,7
	Jaiak	2019ko Kontxako estropadak Sarien indizeak (Emakumeen sariak, guztira/gizonen sariak, guztira)	1,00	
		Danborradak	Mis	% 93,0
			E	% 0,7
			G	% 6,3
		Inauteriak	E	% 83,5
			G	% 16,5
	Donostia Kulturako Berdintasun Plana	Berdintasunerako II. Plana		
	Berdintasunerako partida	2019. Exekutatzeko maila	% 58,17	

	espezifikoa	2020	23.000,00 €
--	-------------	------	-------------



– Aurreko urteko berdintasunaren gastu espezifikokoaren zenbatekoa finkatzea

- **MUSIKA ETA DANTZA UDAL ESKOLA**
MUSIKA ETA DANTZA UDAL ESKOLA (LIBURUTEGIA)
MUSIKA ETA DANTZA UDAL ESKOLA (TXISTULARIAK)

Musika eta Dantza Eskola udalaren erakunde autonomoa da. Irakaskuntza ez-arautuaren helburuak bere egiten ditu kulturaren sorkuntzari, kritikari eta hedapenari begira, musika eta dantza diziplinen alor espezifikoa, lehentasunezko hartuta.

Haren eginkizunak dira ikaskuntza antolatzea, irakaskuntza bideratzea eta Ikasketa Planean sartutako diziplinen ikerketa garatzea, baita bere alorreko zerbitzu publikoa emateari berez dagokion administrazioa kudeatzea ere.

2018/2019 ikasturtean, eskolak 3.748 ikasle izan ditu, eta horren % 56,3 emakumea izan da.

2018/2019 ikasturtean antolatutako ikastaro guztien % 40,1ean ikasleen % 60 emakumea izan da, % 30,8 baino gehiagoan ikasleen % 60 gizona izan da eta % 29,1ean banaketa paritarioa izan da.

Espezialitateei dagokienez, aldaketak egon diren arren, generoaren arabera hautu estereotipatuak mantendu dira: gehienak emakumeak dira dantza klasikoan (% 98,5), dantza garaikidean (% 98,4), euskal dantzan (% 92), biolan (% 81,8), kantuan (% 73,11), oboean (% 72,7), pianoan (% 70,6)... eta gizonak dira gehienak tronboian (% 92,9), baxuak (% 84,7), gitarra elektrikoan (% 84,6), perkusioan (% 83,3), baxu elektrikoan (% 80,8), tronpan (% 80,6), tronpetan (% 79,5)...

2018/2019 IKASTURTEA

ESPEZIALITATEAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK		GIZONAK	
		Zbk	%G	Zbk	%G
Ikasle guztira	3.748	2.109	56,3%	1.639	43,7%
Abesbatza	113	81	71,7%	32	28,3%
Akordeoi Taldea	4	2	50,0%	2	50,0%
Akordeola	20	10	50,0%	10	50,0%
Banda	172	72	41,9%	100	58,1%
Barroco Taldea	17	13	76,5%	4	23,5%
Bateria	72	11	15,3%	61	84,7%
Baxu Elektrikoa	26	5	19,2%	21	80,8%
Big Band	40	9	22,5%	31	77,5%
Biola	33	27	81,8%	6	18,2%
Biolina	69	42	60,9%	27	39,1%
Biolontxelo	34	18	52,9%	16	47,1%
Bonbardino	4	1	25,0%	3	75,0%
Bonbardino Taldeka	1	0	0,0%	1	100,0%
Combo	35	8	22,9%	27	77,1%
Dantza garaikidea	127	125	98,4%	2	1,6%
Dantza garaikidea Helduak	15	14	93,3%	1	6,7%
Dantza Herrera	12	11	91,7%	1	8,3%
Dantza Klasiko hastapenak	56	53	94,6%	3	5,4%
Dantza Klasikoa	130	128	98,5%	2	1,5%
Dantza Klasikoa Helduak	15	13	86,7%	2	13,3%
Dantza Sortzailea	30	28	93,3%	2	6,7%
Euskal Dantza +14 Gazteak	8	7	87,5%	1	12,5%
Euskal Dantza 10-13	6	5	83,3%	1	16,7%
Euskal Dantza 8-9	10	8	80,0%	2	20,0%
Euskal Dantza Helduak	25	23	92,0%	2	8,0%
Euskal Dantzaren hastapenak	10	10	100,0%	0	0,0%
Fagota	9	5	55,6%	4	44,4%
Flauta	66	46	69,7%	20	30,3%
Flauta ezta	14	8	57,1%	6	42,9%
Ganbera Musika	25	13	52,0%	12	48,0%
Gitarra	40	22	55,0%	18	45,0%
Gitarra Elektrikoa	39	6	15,4%	33	84,6%
Gitarra taldeka	2	2	100,0%	0	0,0%
Harmonia	14	7	50,0%	7	50,0%
Ikasketa profesionalerako sarbidea	3	3	100,0%	0	0,0%
Inprobisazioaren hastapenak	13	7	53,8%	6	46,2%
Instrumentuko Talde Barroko	13	8	61,5%	5	38,5%
Kantua	26	19	73,1%	7	26,9%
Klarinetea	118	67	56,8%	51	43,2%

ESPEZIALITATEAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK		GIZONAK	
		Zbk	%G	Zbk	%G
Kolektiboa 15 minutu	5	0	0,0%	5	100,0%
Kontrabaxua	27	10	37,0%	17	63,0%
Mokodun Flauta Taldea	3	3	100,0%	0	0,0%
Moldaketen Hastapenak	10	3	30,0%	7	70,0%
Musika eta Mugimendua	515	286	55,5%	229	44,5%
Musika hezkuntza goiztiarra	10	5	50,0%	5	50,0%
Musika Hizkuntza	390	196	50,3%	194	49,7%
Musika Informatika Tailerra	4	3	75,0%	1	25,0%
Musika Kultura Helduentzat	16	12	75,0%	4	25,0%
Musika Proiektua	62	27	43,5%	35	56,5%
Musika Tailerra	337	157	46,6%	180	53,4%
Musikene jazz-era sarbidea	3	2	66,7%	1	33,3%
Musikene Pedagogia eta Interpretazio klasikoa	4	2	50,0%	2	50,0%
Oboea	24	15	62,5%	9	37,5%
Orkestra	153	98	64,1%	55	35,9%
Panderoa	4	1	25,0%	3	75,0%
Perkusio Taldea	7	4	57,1%	3	42,9%
Perkusioa	24	4	16,7%	20	83,3%
Perkusioa Plus	4	0	0,0%	4	100,0%
Perkusioa taldeka	7	0	0,0%	7	100,0%
Piano moderno	30	16	53,3%	14	46,7%
Piano Taldea	5	3	60,0%	2	40,0%
Pianoa	248	175	70,6%	73	29,4%
Praktika Instrumentala	3	0	0,0%	3	100,0%
Saxofoia	67	21	31,3%	46	68,7%
Talde instrumentalak Herrera	9	1	11,1%	8	88,9%
Taldea	63	39	61,9%	24	38,1%
Trikitia	36	27	75,0%	9	25,0%
Trikitixa Taldea	23	14	60,9%	9	39,1%
Tronboi Plus	11	0	0,0%	11	100,0%
Tronboi taldeka	12	5	41,7%	7	58,3%
Tronboia	14	1	7,1%	13	92,9%
Tronpa	31	6	19,4%	25	80,6%
Tronpeta	44	9	20,5%	35	79,5%
Tronpeta Plus	20	5	25,0%	15	75,0%
Tuba	4	0	0,0%	4	100,0%
Txalaparta	4	2	50,0%	2	50,0%
Txelo Taldea	6	4	66,7%	2	33,3%
Txistu Taldea	19	5	26,3%	14	73,7%
Txistua	24	11	45,8%	13	54,2%

Musika eta Dantza Eskolak Udalaren III. Berdintasun Plana ezartzeko departamentu arteko Batzorde Teknikoan parte hartzen du. Barruko Berdintasun Talde bat eratu dute, berdintasunari zeharkakotasunez heltzeko beren kudeaketan eta zerbitzu ematean, eta antolakuntza eta funtzionamendu araudia ere genero ikuspegitik eratu dute.

2020rako Musika Eskolaren aurrekontua 5.309.971,00 eurokoa da. 2019an zenbatekoa 5.106.863,59 eurokoa zen; beraz, aurten 203.107,41 euro (% 3,98) igo da.

Udal aurrekontuetako hiru programa hartzen ditu: Udal Musika eta Dantza Eskola (4.500.154,00 euro), Musika eta Dantza Eskola Liburutegia (166.016,00 euro) eta Musika eta Dantza Eskola Txistulariak (643.801,00 euro).

Donostiako Udalaren ekarpena 3.045.999,00 eurokoa da gastu arruntean eta 60.875,00 eurokoa kapitalaren gastuan.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	4.667.702,00	87,90
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	581.244,00	10,95
3	Finantza gastuak	150,00	0,00
6	Inbertsio errealak	60.875,00	1,15
GUZTIRA		5.309.971,00	100,00

Musika eta Dantza Eskolak udalaren berdintasun politikak garatzeko duen konpromisoarekin jarraituta, **4.920,00 euroko berdintasunaren partida espezifiko bat, gastu eraldatzailea, jaso da Eskola alderdi hauetan egiten ari den lanarekin jarraitzeko: emakumezko konpositoreen errekonozimendu historikoa, dantza eta musika klasikoan gaur egun matrikulatuta dauden ikasleen desoreka konpentsatzeko sentsibilizazioa eta**

formulak.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ez da definitu		
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	4. L Jaiak eta kultura ez sexista 6. L Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa 7. L Autonomia eta norberaren boterea		
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Helduak Haurrak eta nerabeak		
GENERO ADIERAZLEAK	Ikasleak	Ikastaroak, guztira	% E	% 56,3
			% G	% 43,7
		Segregazio horizontala Espezialitate kopurua	% E>60	32
			% G>60	24
	Berdintasunerako III. Plana ezartzea	Berdintasunerako neurriak garatzeko barne koordinaziorako taldea.		
	Berdintasunerako partida espezifikoa	2019. Exekututze maila	% 100,0	
		2020	4.920,00 €	

GAZTERIA

Gazteria programa, *Kultura* gastu politikan jasotakoa, 2020an igo egingo da eta **2.631.402,00 eurokoa izango da, udal aurrekontuen % 0,61**. 2019an, 2.498.580,68 euroko partida bat esleitu zitzaion, hau da, aurrekontuen % 0,53; beraz, **132.821,32 euro (% 5,32) igo da**.

Programa horren helburua da hiria erakargarria izatea haur, nerabe eta gazteentzat, kalitatezko aisialdi hezigarria eskaintzea, eta, gazteen kasuan, lana eta etxebizitza lortzen laguntzea. Departamentu honen **2017-2020 Plan estrategikoaren** helburuetako bat da **generoaren berdintasuna**.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	500.492,00	19,02
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	1.957.230,00	74,38
4	Transferentzia arruntak	173.680,00	6,60
GUZTIRA		2.631.402,00	100,00

2. kapitulua

Gazteria programaren 2. kapituluari esleitu zitzaion 2019ko 1.846.316,78 euroko zenbatekoa 2020an 1.957.230,00 eurora igoko da; 110.913,22 euro gehiago, hau da, **% 6ko igoera**.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.06	Jarduera soziokulturalak	265.311,00
226.06.02	Gazteen trukeak: gazteak eta Europa	38.045,00
226.06.03	Haurren eta gazteen aisialdia (denbora librea eta Gabonak)	49.766,00
226.06.04	Gazte plana	24.000,00

226.06.05	Hedapen kulturala	6.500,00
226.06.06	Sustapen kulturala	55.500,00
226.06.07	Berdintasun programak	25.500,00
226.06.08	Izarrak Plazara	3.000,00
226.06.09	Martx Up! Programa	38.000,00
226.06.10	0-5 adin tarterako programa	25.000,00
227.04	Zerbitzu enpresak	1.452.491,00

Gazte informaziorako zerbitzua, Haurtxokoen eta Gaztelekuen sarea, aisialdiko programak eta gazteen partaidetza dira Gazteria departamentuaren jardunaren zutabeak, eta, horregatik, islatuta daude aurrekontu programan.

2. kapituluko partida handiena (227.04) Haurtxoko eta Gaztelekuen sarearena da; ekipamendu horiek estrategikoak dira genero ikuspegitik, aukera ematen baitute hurrekin eta gazteekin zuzenean lan egiteko eta zuzenean ezagutzeko haien behar eta interesak, hezkuntza ez-formaleko programen testuinguruan. Espazio horiek hiriko auzoetan banatuta daude eta sare handi bat osatzen dute, eta kanpoko kontratazio bidez kudeatzen dira. Esleitutako azken kontratuaren baldintza agirietan jasota zeuden berdintasun klausula batzuk, eta horri esker, zentro horietako hezitzaileek berdintasunaren arloko prestakuntza daukate, Udalaren Berdintasun Plana ezagutzen dute eta hezkidetzako jarduerak egiten dituzte hurrekin eta gazteekin (2020an horrelako jardueretan sakontzen jarraituko dute).

Berdintasunerako III. Plana ezarrita lortutako emaitzetako bat nabarmendu behar da: hezitzaile hauekin egiten ari den lana. Horrela, lortu da pertsona horiek jabetzea nola ohartu gabe sexismoa transmititzen duten espazio hauetan esku hartzen dutenean, eta identifikatzea hurrek eta gazteek bizitzen eta barneratuta dituzten iruzkin, bizipen, egoera matxistak; horrela, berdintasuna askoz gehiago kontuan hartzen duen esku hartzea sustatu da.

Gainera, **Berdintasunerako partida espezifiko bat (226.06.07), 25.500 eurokoa,** jaso da, 2019an baino 5.000 euro gehiago (% 24,39ko hazkundea), **programetan eta jardueretan indarkeria matxista prebenitzeko,** gastu eraldatzaile bat, beraz.

- **Nerabegaroko indarkeria matxistari buruzko jardunaldien 4. edizioa** antolatzea (14.000,00 €).
- Udalaren Gazteleketan, Haurtxokoetan eta Kontadores Gazte Zentroan izandako **eraso sexisten eta indarkeria matxistaren kasuetan jarduteko protokoloa** lantzen jarraitzea (6.000,00 €).
- **Beldur Barik** kanpaina eta lehiaketa antolatzea eta sustatzea (3.000,00 €).
- **Sexualitatearen inguruko foro antzerkiak. Hezkidetzak** tailerrak (2.500,00 €).

Programak aisialdi programetarako partidak ere baditu: Gabonetakoa, hurrei bideratua, eta kultura aisialdikoa, nerabeei eta gazteei bideratua. Lehenengoan, genero ikuspegia duten jarduera hezitzaileak sartu dituzte aurreko edizioetan, eta alderdi horrek iraunkorra izan behar du eskaintzan.

4. kapitulua

4. kapitulua 2019an bezala mantenduko da, 173.680,00 euroekin. Gazteen elkarreentzako dirulaguntzek (481.01 partida) **berdintasun klausulak dituzte oinarri arautzaileetan.**

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
433.01	DKrekin ikus-entzunezko hitzarmeneterako ekarpena	2.000,00
480.01	Gazteentzako lokaletan aurretiazko komunikazioak egiteko dirulaguntzak	10.000,00
481.01	Gazte elkarreak	85.000,00
481.02	Haurtxokoak (udal haurtxoko gabeko auzoetarako haur ekipamenduetarako)	64.657,00

	hitzarmenak)	
481.03	Zuzeneko beste diru laguntza batzuk	5.523,00
481.04	Gabonak zuretzat	6.500,00
	4. kapitulua, guztira	173.680,00

7. kapitulua

500.000,00 euroko kapital transferentziei buruzko 7. kapitulua jaso da, **Anoeta kiroldegiko haurtxokoaren eta gaztelekuaren obren** lizitazioa jasotzen duena. 12. eta 13. orrialdeetako tauletan, Anoeta Kiroldegiaren programan dago.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ez da definitu		
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	2. L Zaintza erantzukideak 3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea 4. L Jaiak eta kultura ez sexista 5. L Ohitura osasuntsuak eta kirola 7. L Autonomia eta norberaren boterea		
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Haurrak eta nerabeak		
GENERO ADIERAZLEAK	Haurtxoko eta Gaztelekuak	Hezitzaileak	% E	% 72,09
			% G	% 27,91
		Hartxokoetako bazkideak	% E	% 50,98
			% G	% 49,02
		Gaztelekuetako bazkideak	% E	% 38,40
			% G	% 61,60
		2018/2019 ikasturtea Haurtxokoetako erabiltzaileak, batez beste	% E	% 49,54
			% G	% 50,46
		2018/2019 ikasturtea Gaztelekuetako erabiltzaileak, batez beste	% E	% 42,47
			% G	% 57,53
	Kontadores Gazte Zentroa 2017-2018	Hezitzaileak	% E	% 66,67
			% G	% 33,33
		Laborategiak	% E	% 72,98
			% G	% 27,02
	"Nerabegaroko indarkeria matxista" III. jardunaldiak	Hizlariak, clown-a, bideoa, eta abar	% E	% 57,14
			% G	% 42,86
		Izen emateak	% E	% 70,07
			% G	% 24,49
			Ez binarioa	% 5,44
	Berdintasunerako partida espezifikoak	2019. Exekutatzeko maila	% 20,60	
		2020	25.500,00 €	

● DONOSTIA KIROLA

KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA)

KIROLAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Kiroleko Udal Patronatua Udalaren erakunde autonomoa da, udalerrian kirola garatzea xede duena, kirola pertsonen oinarritzeko eskubidea dela iritzita, izan kirolaren heziketa-prestakuntza alderdiari erreparatuta, izan jolas alderdiari eta alderdi lehiakorrari erreparatuta, bai eta kirola ikuskizun gisa hartuta ere.

Kirol instalazioak kudeatzen ditu, zuzenean (Belodromoa, Gasca-Atano, Yoldi, Bidebieta, SS Arena, Intxaurren, Altza, Egia, Benta Berri, Etxadi) eta zeharka (Zuhaizti kiroldegia, Martutene FK, Berio FK, Matigoxotegi FK, Cesar Benito FK, Puio FK, Herrera FK, Loiolako Erriberak KK).

Kirol Txartela eta kirol kanpainak kudeatzen ditu. Kirol Txartelak 48.326 abonatu zituen 2018an; % 46,1 emakumezkoa.

Eta dirulaguntza izendunak eta konkurrenteak ematen ditu. Dirulaguntza konkurrenteetan, ekintza positibo bat ezarrita dutenez, klubetan federatutako emakumeei puntuazio bikoitza ematen zaie. Ez dago sexuaren arabera bereizitako dirulaguntza hauei buruzko daturik.

Bere kudeaketa tresna garrantzitsuen **Plan Estrategikoa da**. Plangintza estrategikoaren ardatzak hauek dira:

- A. HOBETZEA JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA EGITEA
- B. HIRIA KIROL EREMU IZATEA
- C. KIROL SISTEMA INTEGRATUA ETA KALITATEZKOA IZATEA.
- D. KIROL ZERBITZUEN KUDEAKETA JASANGARRIA IZATEA.
- E. BARNE KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUA HOBETZEA.

2019-2022 plangintza zikloan, berdintasunari dagokionez, konpromiso hauek jaso dira:

A.4.- ESKOLA KIROLAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA HANDITZEA

Xedea da gaur egungo eskola kirolaren eskaintza finkatzea, hezkuntzaren osagaietan, osagai osasungarrietan eta ludikoetan eraginez, helburua izanik kirol gehiago egin dezatela segmentu ahulenei eta gaur egun emakumeen kirolaren, kirol egokituaren eta immigratzaileen kasuan dauden desparekotasunak murriztea, kohesioa soziala eta euskararen erabileraren normalizazioa sustatuz.

D.3.- SOZIALKI ARDURATSUA IZATEA INGURUNEAREKIN.

D.3.3.- Ekintzak egitea gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko, hala kanpoan nola Donostia Kirola erakundearen lan egiten duten pertsonen artean.

A.5.- KIROL FEDERATUAREN ESKAINTZA FINKATZEA, EMAKUMEEN PARTE HARTZEA SUSTATUZ

A.5.1.- Kirol federatuen determinatzaile sozialek eta genero determinatzaileek biztanleengan duen eraginak sortutako desparekotasuna murriztea.

A.5.2.- Dirulaguntzen politika partaidetzako eta errendimenduko kirol federatuen ezarritako helburuetara egokitzea.

A.5.3.- Eliteko emakumeen kirola sustatzea, emakumeen artean kirolaren praktika federatua igotzeko erreferentzia izan daitezen.

Interesgarria izango litzateke gogoeta estrategikoaren hurrengo epealdian, Berdintasunaren Unitateak parte hartzea.

Kirolaren Udal Patronatuak 2020rako 17.059.821 euroko aurrekontua du (udal aurrekontuaren % 3,9), 2019an baino 1.195.544,59 euro gehiagoko aurrekontua, beraz. 2019an, 15.864.276,41 euroko (% 3,4) aurrekontua izan du. Udal aurrekontuetako hiru programa hartzen ditu: Kirolak: Zuzendaritza eta administrazioa (4.452.845,00 €), Donostia Kirola (3.138.083 €) eta Donostia Kirola kirol instalazioak (9.468.893 €).

Donostiako Udalaren ekarpena 7.287.239,00 eurokoa da gastu arruntetan eta 715.000 eurokoa kapitalaren gastuan.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	4.968.043,00	29,12
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako	9.817.778,00	57,55

	gastuak		
3	Finantza gastuak	23.500,00	0,14
4	Transferentzia arruntak	1.535.500,00	9,00
6	Inbertsio errealak	715.000,00	4,19
GUZTIRA		17.059.821,00	100,00

2. kapituluaren, aurreko ekitaldietan bezala, **4.235,00 euroko berdintasun partida espezifiko bat (gastu eraldatzailea)** jaso da **Goazen neskak**, bideorako; horren helburua da eliteko kirolariak ikusaraztea eta erreferentzia positiboak eskaintzea emakumeei eta neskei, eta, horrela, emakumeen kirola sustatzea. Eta 2.500,00 euroko beste bat **Emakumeen kirolaren ekitaldiko trofeoetarako**.

6. kapitulua

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
622.99.01	SS Arenaren zolarria eraberritzea	300.000,00
622.99.02	Yoldi gimnasioa eraberritzea	225.000,00
623.01	Gimnasioko makinak berritzea	180.000,00
625.01	Altzari txikiak berritzea	2.500,00
626.01	Ekipamendu informatikoak berritzea	5.000,00
629.01	Publizitate materiala	2.500,00
	6. kapitulua, guztira	715.000,00

Programa honetako inbertsioak garrantzitsuak dira generoaren ikuspegitik, eragin zuzena duena III. Planaren 5. esku hartze lerroan, *Ohitura osasuntsuak eta kirola* izenekoan, baldin eta neskek eta emakumeek kirola egitea sustatzen duten eremuen eta materialen inbertsiora bideratzen badira.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ez da definitu		
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	L5. Ohitura osasuntsuak eta kirola		
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Helduak Haurrak eta nerabeak Behar bereziak dituzten pertsonak		
GENERO ADIERAZLEAK	Erabiltzaileak	Kirol Txartela. Abonatuak	% E	% 46,1
			% G	% 53,9
	Eskola kirola	Izen emateak, sexuaren arabera	% E	% 42,0
			% G	% 58,0
	Kirol federatua	2018ko federazio lizentziak	% E	% 33
			% G	% 67
	Berdintasunerako partida espezifikoak	2019. Exekutatzeko maila	% 100,00	
		2020	6.735,00 €	



- Pixkanaka igotzea berdintasunaren partida Patronatuaren plangintza estrategikoan jasotako helburuak eta jarduketak era egokian garatzeko.

7.3. Oinarrizko zerbitzu publikoak

● UDALTZAINGOA

Udaltzaingoa programa, *Segurtasuna eta herritarren mugikortasuna* gastu politikan jasotakoa, 2020an **24.789.792,00 eurokoa izango da, hau da, udal aurrekontuen % 5,73 esleituko zaio.** 2019an, partida honetarako 23.327.628,75 euro esleitu ziren, hau da, udal aurrekontuen % 4,99. Programa honi, beraz, 1.462.163,25 euro gehiago (% 6,27) esleituko zaizkio eta igoeraren zati handiena 1. kapitulurako izango da (1.311.600,45 €).

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	23.218.115,00	93,66
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	1.506.429,00	6,08
6	Inbertsio errealak	65.248,00	0,26
GUZTIRA		24.789.792,00	100,00

Kapitulu hau, hain zuzen, garrantzitsua da generoaren ikuspuntutik, kontuan izanda udaltzainek eskaintzen dien **arreta eraso sexistak izaten dituztenei.**

Azken urteetan bezala, 2. kapitulan 3.500,00 euroko partida espezifiko bat jaso da Berdintasunerako III. Plana ezartzeko. Partida hori udaltzainei indarkeria matxistan prestakuntza emateko bideratu da, eta, beraz, gastu eraldatzailea da.

Gaur egungo Udaltzaingoaren plantillan 317 udaltzain daude, 61 emakume (% 19,2) eta 256 gizon (% 80,8). **Orain arte, emakumezko langileen %80,3k (49) genero indarkeriari buruzko prestakuntza jaso du; aldiz, gizonezko langileen % 65,2k (167) jaso du prestakuntza hori.**

Era berean, Udaltzaingoak parte hartzen du puntu kritikoen departamentu arteko udal taldean; hori dela eta, **puntu gatazkatsuen segimendua** egiten du.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ertaina. 19 gehieneko 34ren gain		
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	3. lerroa Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea		
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Helduak Haurrak eta nerabeak Behar bereziak dituzten pertsonak		
GENERO ADIERAZLEAK	Indarkeria matxista	2019ko salaketak	Kop.	125
			%salaketa guztien gain	% 2,5
		Salaketak jasotzen dituzten langileak	% E	% 32,5
			% G	% 67,5
		Indarkeria matxistari buruzko prestakuntza duten udaltzainak	% E	% 80,3
			% G	% 65,2
	Berdintasunerako partida	2019. Exekutatzeko maila	% 100,00	

	espezifikoa	2020	3.500,00 €
--	-------------	------	------------

● HIRI MUGIKORTASUNA

Hiri mugikortasuna programa, *Segurtasuna eta herritarren mugikortasuna* gastu politikan jasotakoa, 2020an **8.775.134,00 eurokoa** izango da, hau da, **udal aurrekontuen % 2,03** esleituko zaio. 2019an, partida honetarako 8.710.998,98 euro esleitu ziren, hau da, udal aurrekontuen % 1,86. 64.135,02 euro gehiago (% 0,74) izango ditu programa honek.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	6.019.270,00	68,60
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.457.364,00	28,00
4	Transferentzia arruntak	10.500,00	,12
6	Inbertsio errealak	288.000,00	3,28
GUZTIRA		8.775.134,00	100,00

2. kapitulua

Hiri Mugikortasuna programaren 2. kapituluari 2.457.364,00 euro esleituko zaizkio 2020an, 2019an baino 71.360,99 euro gutxiago. Orduan, kapitulua 2.528.724,99 eurokoa baitzen.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.99	Bestelako gastuak	139.632,00
226.99.01	Bestelako gastuak	6.400,00
226.99.03	Bizikletaren azoka	25.000,00
226.99.05	Mugikortasun jasagarriaren astea	5.600,00
226.99.07	Eskola Bidea	3.000,00
226.99.12	City changer cargo-bike proiektua	98.432,00
226.99.14	Sumps-Up	1.200,00

Mugikortasun jasagarriaren ikuspegitik interesgarria da **Eskola Bidea** programa, Mugikortasun Zuzendaritzak sustatutakoa. Programa honek haurren autonomia sustatzen du taldean etxetik eskolara joateko, boluntarioen laguntzarekin. Aurreko urteetan, programa honi 53.000,00 euroko partida bat (226.99.07) esleitu zaio, proiektua kudeatzeko laguntza tekniko kontratatzeke. Laguntza tekniko honek lagundu egiten zuen, halaber, **Donostia Lagunkoia programan eta Berdintasunerako Planaren neurrien garapenean**. Gaur egun, eginkizun hauetan aritzen den langilea Udaleko langile izatera pasatu da; beraz, partida 3.000,00 euro jaitsi da. Lana, beraz, 1. kapitulan jasotzen da.

4. kapitulua

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
435.01	Bizikleta Behatokitako Cristina Eneari diru ekarpena	7.500,00
481.01	Bizikleta erabilera sustatzeko Kalapie-ri diru ekarpena	3.000,00
	4. kapitulua, guztira	10.500,00

Bizikleta emakumeek eta gizonek erabiltzeari buruzko datuak orekatuak dira, nolabait. 2016an egindako

azken kontaktak sexuaren arabera bereizi dira: Kontxa (% 39 emakumeak, % 61 gizonak), Federico García Lorca igogailu ingurua eta Cristina Enea parkea (% 49 emakumeak, % 51 gizonak), Kursaalera zubia eta Zurriola hiribidea (% 41 emakumeak, % 59 gizonak), Santa Katalina zubia (% 36 emakumeak, % 64 gizonak); baina ez da beti horrela, baldin eta guneei edo txirrindularien adinari erreparatzen badiegu. Emakumeek nahiago dituzte erdialdeko gunek bizikletaz ibiltzeko, ez hainbeste kanpoko eremuak. Gainera, 60 urtetik gorako emakumeen artean bizikletaren erabilerak nabarmen egiten du behera.

Bizikletak alokatzeko Dbizi sistema publikoan 2.632 pertsona daude alta emanda. Horietatik 1.214 (% 46,1) emakumeak dira eta 1.418 (% 53,9) gizonak. Ez daukagu zerbitzuaren erabilera errealari buruzko daturik.

6. kapitulua

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
601.99.05	Garbera handitzeko jarduketak	100.000,00
623.02.01	Semaforo instalazioak	100.000,00
643.01	Ikerketak eta proiektuak	88.000,00
	6. kapitulua, guztira	288.000,00

Mugikortasun jasangarriak bateratzea eta erantzukidetasuna sustatzen ditu. Mugikortasun jasangarria haratago doa, eta eskatzen du **auzoetan hurbileko zerbitzuak** izatea (eskolak, haur eskolak, osasun zentroak, merkataritza, etab.) pertsonen desplazamendu laburrak egiteko, batez ere, oinez.

Ilido horretan, 6. kapitulan onetsitako inbertsioetako bat Garbera merkataritza-gunea handitzeko da (100.000 euro). Jarduketa horrek ez du laguntzen hurbileko merkataritza garatzen.

Autobusaren erabilerari dagokionez, DBUSen 2017an egindako bidaiak erakusten dute bidaien % 67,46 emakumeek egin zituztela eta % 32,54 gizonak. Eguneko bidaien kasuan, ehuneko aurrekoaren antzekoa da: % 67,52 emakumeak eta % 32,48 gizonak. Aldiz, gaueko lineak erabiltzean, gizonen pisua igo egiten da: % 57,65 emakumeak eta % 42,35 gizonak.

Horrek guztiak adierazten digu garraiobideak erabiltzean desberdintasunak daudela emakumeen eta gizonen artean, lanaren banaketa sexualaren ondorioz. Hala, adin ertaineko gizonak nagusiki ibilgailu pribatua erabiltzen dute ordaindutako lanarekin eta aisiarekin lotutako joan-etorrietarako, eta emakumeak, aldiz, batik bat oinez edo garraio publikoan mugitzen dira, gehiago eta bide laburragoetan, zaintzarekin, harreman pertsonalekin eta ordaindu gabeko lanarekin lotuago dauden arrazoiengatik.

Sexu bakoitzak erabiltzen dituen garraio motei buruzko datuak aintzat hartuta, komeni da gogoan edukitzea garraio publikoko sarea hobetzera bideratutako gastuak onura handiagoa ekarriko diela emakumei eta horiek zaintzen dituzten pertsonari: adingabeei eta mendekotasuna duten pertsonari. Aldiz, aparkalekuetan edo ibilgailu pribatuen joan-etorriak hobetzeko proiektuetan inbertituz gero, onuradun nagusiak gizonak izango dira.

Era berean, kontuan hartu behar da espaloian eraikitako bidegorriek espazioa eta segurtasuna kentzen dizkietela oinezkoari, batez ere ahulenei (adinekoei eta haurrei), eta arazoak sortzen dituztela oinezkoen eta txirrindularien artean. Motordun zirkulaziotik hurbil dauden babes gutxiko bidegorriak ez dira oso erakargarriak emakumeentzat, eta segurtasun gutxiagokoak dira txirrindulari guztientzat. Beraz, bidegorri seguruetan inbertitzea komeni da, hau da, zirkulazioaren abiadura moteltzen lagunduko duten eta oinezkoen pasabideetan ahalik eta eragozpen gutxien sortuko duten bidegorrietan. Era berean, interesgarria izango litzateke auto gidarientzako sentsibilizazio kanpainak egitea autoen eta bizikleten arteko bizikidetzaren hobea sustatzeko, eta emakumeak, bereziki 60 urtetik gorako emakumeak, bizikleta erabiltzera animatzea, bizikleta

elektrikoen alokairu publikoko sistemari buruzko ikastaroak eta erakustaldiak egitea.

Azkenik, eredu maskulinoa orokortzea eragotzi nahi bada (hau da, kasu honetan, emakumeek gizonen garraio ohiturak hartzea) eta mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egin nahi bada, aztertu behar da nola erakar daitezkeen gizonak garraio publikoaren sarera, eta, hortaz, sentsibilizazio kanpainen, halakorik bada, gizonengana bideratuta egon beharko dute. Bestalde, hiriko zirkulazioari eta mugitzeko moduei buruzko edozein azterlanek kontuan hartu beharko luke genero ikuspegia, arlo horretan desberdintasun handiak baitaude.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ertaina. 17 gehieneko 34ren gain		
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	2. L Zaintza erantzukideak 3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea 5. L Ohitura osasuntsuak eta kirola		
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Helduak Haurrak eta nerabeak Behar bereziak dituzten pertsonak		
GENERO ADIERAZLEAK	DBizi	Txartelen titularrak	% E	% 44,4
			% G	% 55,6
	Kontratazioak	TAO agenteak	% E	% 37,7
			% G	% 62,3
		GARABIKO langileak	% E	% 11,1
			% G	% 88,9
	Semaforoetako langileak		% E	% 22,7
			% G	% 77,8
	Eskola Bidea	Ikastetxe parte hartzaileak	29	
	Berdintasunerako partida espezifikoa	2020	0,00 €	



- Txertatzea partida espezifiko bat mugikortasunaren programak generoaren ikuspegitik garatzeko.

● MUGIKORTASUN BERTIKALA

Mugikortasun bertikala programa, *Segurtasuna eta herritarren mugikortasuna* gastu politikan jasotakoa, 2020an 315.000,00 eurokoa izango da, hau da, udal aurrekontuen % 0,07 esleituko zaio.

Partida bakarra (601.99.03) du 6. kapituluari, inbertsioei buruzkoa, 315.000,00 eurokoa, Heriz-Erregezaintza kaleko igogailurako. Inbertsio garrantzitsua da generoaren ikuspegitik eta mugikortasun jasangarria zein irisgarritasuna ere sustatzen ditu. Gainera, zuzenean eragiten du Udalaren Berdintasunerako III. Planaren 2. lerroan, *Zaintza erantzukidea* izenekoan eta 7. lerroan, *Autonomia eta norberaren boterea* izenekoan.

● HIRIGINTZA

Hirigintza programa, *Etxebizitza eta hirigintza* gastu politikan jasotakoa, 2020an **16.549.213,00** eurora jaitsiko da, hau da, **udal aurrekontuen % 3,83 izango da**. 2019an, partida honetarako 17.626.896,42 euro esleitu ziren, hau da, udal aurrekontuen % 3,77. Beraz, 1.077.683,42 euro (% 6,11) gutxiago izango ditu. Jaitsiera hau egin da, zeren 2019an ez bezala, ez dago kapital transferentziarik (7. kapitulua). 1, 2, eta 6. kapituluak igo egin dira.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	4.419.222,00	26,70
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	341.791,00	2,07
6	Inbertsio errealak	11.788.200,00	71,23
GUZTIRA		16.549.213,00	100,00

6. kapitulua

6. kapitulua da programako garrantzitsuen; izan ere, aurrekontuaren % 71,23 biltzen da bertan.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
600.99.01	Lursailak eta beste ondasun eta eskubide batzuk eskuratzea, desjabetzeengatik kalte ordainak eta aldi baterako ostatu emateak	1.293.200,00
601.99.06	Astiñene zubia	1.130.000,00
601.99.08	Espartxo zubia	105.000,00
601.99.09	Eskuzaitzetako urbanizazio lanak	8.900.000,00
643.02	Hirigintzako antolamendu eta egikaritze lanak	360.000,00
	6. kapitulua, guztira	11.788.200,00

Urbanizazio interesgarriak, baldin eta oinezkoentzako guneak badira, hiriaren komunitate erabilera, hiriguneen eraberritzea eta garraiorako autoaz bestelako moduak erabiltzea errazten badute. Horiek eragin egiten dute III. Planaren *7. lerroan, Autonomia eta norberaren boterea* izenekoan.

2019an, arau eta egintza administratiboen **eraginaren aurretiazko ebaluazioak generoaren arabera** egiteko lege mandatu bat betetzeko, Udalak onetsitako instrukzioa dela eta, 643.01/18 partidaren 17.545 euro txosten horiek egiteko laguntza teknikora bideratu ziren. 2020ko udal aurrekontuetan ez da horretarako partidarik jaso.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Handia 26 gehieneko 34ren gain	
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistatik gabea	
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Helduak Haurrak eta nerabeak Behar bereziak dituzten pertsonak	
GENERO ADIERAZLEAK	Berdintasunerako partida espezifikoak	2020	0,00 €



– Partida espezifiko bat sartzea prestakuntza izateko eraginaren

aurretiazko ebaluazioak generoaren arabera egiteko edo horiek egiteko kanpoko laguntza tekniko bat kontratatzeko.

● DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA

Etxegintza enpresa publikoaren aurrekontua asko jaitsiko da 2020an, zeren 2019ko 37.377.256,52, eurotik (udal aurrekontuen % 8) **20.528.662 eurora** pasatuko da 2020an (% 4,75); **16.848.594,52 euro jaitsiko da (-% 45,08)**, inbertsioen 6. kapituluaren daudenak, batez ere.

Donostiako Udalaren ekarpena 694.058 eurokoa da gastu arruntan eta 2.738.922,00 eurokoa kapitalaren gastuan.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	1.896.637,00	9,24
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	3.941.250,00	19,20
3	Finantza gastuak	1.050.352,00	5,11
6	Inbertsio errealak	8.776.001,00	42,75
9	Finantza pasiboak	4.864.692,00	23,70
GUZTIRA		20.528.662,00	100,00

ALOKABIDE zerbitzuak, beren etxebizitza alokairuan eman nahi dutenen eta etxebizitza bat alokatu nahi dutenen artean bitartekaritza egiten duen zerbitzuak, lehentasuna ematen dio indarkeria matxistari aurre egin beharrean diren emakumeei ostatu emateari, gizarte zerbitzuek hala eskatuta.

Beste zerbitzuetako bat da 65 urtetik gorakoei apartamentuak alokairuan eskaintzea, 231 euroko errentaren truke, bi logelakoak, pertsona batek zaintzera joan behar badu ere, gehienez 5 urterako. Gazteei ere eskaintzen zaizkie, errenta berdinean. Kasu honetan, aldi baterako izaten dira, 5 urterako eta ezin da kontratua berritu.

Beste partida bat da auzo komunitateek eta familiek birgaitzeak egiteko dirulaguntzetarako. Helburua da adinekoen bizi kalitatea hobetzea: mugikortasuna, segurtasuna, efizientzia energetikoa.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ez da definitu	
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	7. L Autonomia eta norberaren boterea	
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Helduak Behar bereziak dituzten pertsonak	
GENERO ADIERAZLEAK	Berdintasunerako partida espezifikoa	2020	0,00 €

● BIDE PUBLIKOAK

Bide publikoak programak, *Etxebizitza eta hirigintza* gastu politikan jasotakoak, 2020an 2.018.287,00 euro izango ditu, hau da, udal aurrekontuen % 0,47. 2019an, partida honetarako 1.726.104,57 euro esleitu ziren, hau da, udal aurrekontuen % 0,37. 292.182,43 euro (% 16,93) gehiago izango ditu.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	392.457,00	19,45
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	1.145.830,00	56,77
6	Inbertsio errealak	480.000,00	23,78
GUZTIRA		2.018.287,00	100,00

2. kapitulan 225.000,00 euroko partida garrantzitsu bat (227.13.03) dago, **haurrentzako jolasak eta parkeak mantentzeko**, zaintza hiriaren antolaketaren barnean kokatzen duena, eta beste partida bat (227.13.04) dago, 130.725,00 eurokoa, **bankuak mantentzeko**.

6. kapitula

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
601.10	Hiri altzariak margotzeko kanpaina	300.000,00
601.99.01	Haur parkeak ordezte eta berritzea	180.000,00
	6. kapitula, guztira	480.000,00

601.99.01 partida garrantzitsua da generoaren ikuspuntutik, zeren eragin egiten du Berdintasunerako III. Planaren 2. *lerroan*, *Zaintza erantzukidea* izenekoan.

● ARGITERIA PUBLIKOA

Argiteria publikoa programa, *Komunitate ongizatea* gastu politikan jasotakoa, 2020an **4.147.331,00** eurora jaitsiko da, hau da, **udal aurrekontuen % 0,96**. 2019an, partida honi 4.245.392,12 euro (aurrekontuen % 0,91%) esleitu zitzaizkion; **98.061,12 euroko (-% 2,31) jaitsiera** egingo da, inbertsio errealen 6. kapitulan egingo dena; aldiz, 1. eta 2. kapitula igo egingo dira.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	56.041,00	1,35
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	3.956.290,00	95,39
6	Inbertsio errealak	135.000,00	3,26
GUZTIRA		4.147.331,00	100,00

2. kapitulan aurrekontu partida hauek nabarmentzen dira: 221.01, energia elektrikoa, 2.000.000,00 eurokoa eta 227.13.02, argiteria publikoa mantentzekoa, 1.800.000,00 eurokoa.

6. kapitulua

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
601.01	Energia efizientzia hobetzeko neurriak	135.000,00
	6. kapitulua, guztira	135.000,00

Garrantzitsua da efizientzia energetikoa hobetzeko hobekuntzak ez ekartzea eremuen eta kaleen argitasunean murrizketa handirik, funtsezko gaia baita generoaren ikuspuntutik, zeren segurtasuna eta segurtasun sentazioa handitzen da, eta eragin egiten baitu III. Planaren 3. esku hartzean, ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea izenekoan, eta 7. esku hartzean, Autonomia eta norberaren boterea izenekoan.

● PARKEAK ETA LORATEGIAK

Parkeak eta lorategiak programa, *Ingurumena* gastu politikan jasotakoa, 2020an, **7.231.461,00** eurokoa izango da, hau da, udal aurrekontuen % 1,67. 2019an, partida honi 6.907.622,29 euro (aurrekontuen % 1,48) esleitu zitzaizkion; **323.838,71 euro (% 4,69) igoko da**, 2. kapituluan jaso dena.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	588.633,00	8,14
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	6.467.828,00	89,44
6	Inbertsio errealak	175.000,00	2,42
GUZTIRA		7.231.461,00	100,00

2. kapituluan, 5.706.806,00 euroko partidarik garrantzitsuena (227.14) berdeguneen mantentze lanetara bideratuko da.

6. kapituluan, bi partida jaso dira: bata, 100.000 eurokoa txorkoak betetzeko eta, bestea, 75.000 eurokoa parkeetako hartxintzar bideak hobetzeko.

Partida horiek komunitate erabilera sustatzen dute, eta eragin egiten dute III. Planaren 7. esku hartze *lerroan, Autonomia eta norberaren boterea izenekoan*.

● HONDARTZAK

Hondartzak programa, *Ingurumena* gastu politikan jasotakoa, 2020an, **3.253.704,00** eurokoa izango da, hau da, udal aurrekontuen % 0,75. 2019an, partida honi 3.140.251,48 euro (% 0,67) esleitu zitzaizkion; **igoera 113.452,52 eurokoa da (% 3,61)**.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	127.652,00	3,92
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.972.116,00	91,35

6	Inbertsio errealak	153.936,00	4,73
GUZTIRA		3.253.704,00	100,00

2. kapituluaren partida hauek nabarmentzen dira: hondartzen garbiketa lanak (227.01), 806.550,00 eurokoa; salbamendua eta sorospena (227.99.04), 790.000,00 eurokoa; aldagelak (227.99.03), 429.336,00 eurokoa; Ondarreta hondartzan harriak kentzea (227.01.01), 292.935,00 eurokoa; eta aulkien eta eguzkitakoen alokairua (227.99.02), 289.896,00 eurokoa.

6. kapituluaren partida, 153.936,00 eurokoa, kabinak hobetzeko izango da.



- Partida espezifiko bat sartzea, besteak beste, kabinetako, aulkien eta eguzkitakoetako pertsonalak prestakuntza jasotzeko indarkeria matxistaren prebentzioan, edo halakorik bada, berdintasun klausulak txertatzeko zerbitzuak kontratatzeko agirietan.

7.4. Jarduera ekonomikoak

● HIRI MANTENTZEA ETA ZERBITZUAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa programa, *Azpiegiturak* gastu politikan jasotakoa, 2020an, **1.370.429,00 eurora** jaitsiko da, **udal aurrekontuen % 0,32 jasoko du**. 2019an, partida honetarako 1.520.181,47 euro esleitu ziren, hau da, udal aurrekontuen % 0,33. 149.752,47 euro (-% 9,85) gutxiago izango ditu. Jaitsiera hori inbertsioen kapituluaren egingo da; aldiz, 1. eta 2. kapituluak igo egingo dira.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	1.002.929,00	73,18
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	167.500,00	12,22
6	Inbertsio errealak	200.000,00	14,60
GUZTIRA		1.370.429,00	100,00

Aurreko urteetan bezala, **25.000,00 euroko Berdintasunaren partida espezifiko bat (226.99.02), gastu eraldatzailea, sartu da. 20.000 euro puntu kritikoak hobetzeko eta 5.000 euro generoaren ikuspuntua kontuan hartzen duten partaidetza prozesuetarako.**

Hirian bizitzen denean, segurtasunik ezaren sententzia emakumeek gizonen baino bi aldiz handiagoa dute, eta horrek ondorioak ditu emakumeen mugimendu askatasunean. Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak urteak daramatza parte hartzen **hiri konfigurazioa eta mugikortasuna generoaren ikuspuntutik aztertzen duen departamentu arteko udal talde batean**, emakumeek ez segurutzat jotzen dituzten hiriko tokiak kentzeko edo arintzeko helburuarekin.

PUNTU KRITIKOETAN ESKU HARTZEA

2018	- Hobekuntzak Ategorrietako geltokian - Izoztegiko semaforoen diseinua - Zorroagako tunelaren inguruko garbiketa - Garbera-Larratxo pasadizoko hobekuntzak - Patxilardegiko atzeko aldeko konponketak - Lorezaintzaren eta argiteriaren segimendua. - Irisgarritasuna hobetzeko obrak (beheraguneak, arrapala Alde Zaharrean...)
2019ko aurreikuspena	- Oletako pasadizoko hobekuntzak - Izoztegin semaforoak jartzea - Matigoxotegiko argiteria berrikustea - Manteo - Hobekuntzak Herrera Gonzaga plazako bi eremutan - Hobekuntzak lorezaintzan - Argiteria hobetzea Lorategi Hirian - Errondo gaineko bide nagusia hobetzea

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ertaina. 18 gehieneko 34ren gain
	Aurrekontu programek berdintasunerako III.	2. L Zaintza erantzukideak 3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistatik gabea

	Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	5. L Ohitura osasuntsuak eta kirola 6. L Emakumeen parte hartze soziopolitikoak eta ekonomikoak		
Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Helduak Haurrak eta nerabeak Behar bereziak dituzten pertsonak			
GENERO ADIERAZLEAK	Kexak	Iradokizunak	% E	% 51,6
			% G	% 48,4
	Puntu kritikoak	2015-2017 aldian esku hartu den puntu kritikoak	17	
		Gastua puntu kritikoetan, 2018an	345.584,00 €	
	Berdintasunerako partida espezifikoak	2019. Exekutatzeko maila	Ez dakigu	
		2020	25.000,00 €	

● PROIEKTUAK ETA OBRAK

Proiektuak eta obrak programa, *Azpiegiturak* gastu politikan jasotakoa, 2020an 3.138.579,65 euro jaitsiko da (-% 21,60), zeren 2019ko 14.529.229,65 eurotik (udal aurrekontuen % 3,11) **11.390.650,00 eurora (% 2,63)** pasatuko da 2020an. Jaitsiera hori inbertsio errealean 6. kapituluaren egingo da; aldiz, 1. eta 2. kapituluak igo egingo dira.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	2.244.903,00	19,71
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	75.747,00	0,66
6	Inbertsio errealeak	9.070.000,00	79,63
GUZTIRA		11.390.650,00	100,00

6. kapituluak

Kapitulu hau da programako garrantzitsuenak, eta nahiz eta murriztu den, aurrekontuaren % 79,63 bideratuko da.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
601.99.01	Altzako kiroldegi ingurua berrurbanizatzea	900.000,00
601.99.05	Loiolako zeharbidea	3.750.000,00
601.99.06	Iztuetako biaduktu ingurune hobekuntzak	3.000.000,00
601.99.08	Haizearen orrazia birgaitzea	600.000,00
601.99.10	Felix Irazo aparkalekua	130.000,00
601.99.14	ITEM 4ean lanak	100.000,00
643.01	Segurtasuna eta osasuna koordinatzea	200.000,00
643.02	Ikerketak eta proiektuak	200.000,00
643.03	Lanen kalitate kontrola	90.000,00
643.04	Gorakako aparkalekuei buruzko ikerketa lanak	100.000,00
	6. kapituluak, guztira	9.070.000,00

Urbanizazio interesgarriak, baldin eta oinezkoentzako guneak badira, **hiriaren komunitate erabilera**, hiriguneen eraberritzea eta garraiorako autoaz bestelako moduak erabiltzea errazten badute. Horiek eragin egiten dute III. Planaren 7. *lerroan*, *Autonomia eta norberaren boterea lerroan* izenekoan.

● DONOSTIA TURISMO

"San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa, S.A." sozietatea 2006ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran onetsi ziren estatutuetatik sortu zen. Donostiako Udalaren merkataritza sozietate bat da, eta udal titulartasuneko sozietate anonimoa da.

Bere xedea da Donostiako lurralde eremuan turismoaren garapena, zuzenean edo zeharka, bultzatzen laguntzen duten jarduera ekonomiko eta sozialak sustatzea, garatzea eta indartzea.

Sozietate honek gaur egun dituen erronka estrategikoak hauek dira:

1. ERRONKA HELBURUAREN KUDEAKETA EREDUA OPTIMIZATZEA
2. ERRONKA DONOSTIA MARKA FINKATZEA ETA MARKETIN ESTRATEGIAK BERRITZEA
3. ERRONKA DONOSTIAKO TURISMOAREN GOBERNANTZA ETA ANTOLAMENDU EREDU BERRIA DEFINITZEA

Erronka hauetan ez da sartu berdintasuna zeharkako eran: datuak sexuaren arabera bereiztea, ezagutu ahal izateko, hala badagokio, Donostia bisitatzen duten emakumeek eta gizonek, besteak beste, dituzten pertzepzioen, iradokizunen eta beharren arteko desberdintasunak; hiriak duen segurtasuna, aldagaia izatea emakumeek bakarrik bidaiatzea erabakitzeko; berdintasuna, balio turistikoa izatea,...

Donostia Turismoak **ez du parte hartzen Berdintasunerako III. Plana ezartzeko departamentu arteko Batzordean**. Sozietate Anonimo gisa, gomendagarria izango litzateke Berdintasunerako bere barne Plana izatea, beste udal enpresa batzuk bezala.

San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa, S.Aren aurrekontua 2020rako **3.876.153,00 eurokoa da (udal aurrekontuen % 0,90)**, 2019. urtearekin alderatuta 170.567,00 euro igo da (% 4,60). Diru sarreraren atalean, Udalaren ekarpena da diru sarrerarik handiena, zeren gastu arruntetan 2.951.153,00 euroko ekarpena egiten du eta 25.000,00 eurokoa kapitalaren gastuan, hau da, % 76,8 guztizkoaren gain.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	2.028.653,00	52,34
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	1.822.500,00	47,02
6	Inbertsio errealak	25.000,00	0,64
GUZTIRA		3.876.153,00	100,00

2. kapituluaren datuen behatokiarekin eta horiek lortzearekin erlazionatutako hainbat partida daude, eta horietan ezinbestekoa da sexuaren aldagaia sartzea, berdintasunaren legearen eta programaren esparruan adierazten den bezala.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ez da definitu
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistatik gabea 4. L Jaiak eta kultura ez sexista 7. L Autonomia eta norberaren boterea

	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Helduak Haurrak eta nerabeak	
GENERO ADIERAZLEAK	Berdintasunerako bere plana	Ez dauka Berdintasunerako planik	
	Berdintasunerako partida espezifikoak	2020	0,00 €



- Parte hartzea Batzorde Politiko eta Teknikoan Udalaren Berdintasunerako Plana ezartzeko.
- Sexuaren aldagaia sartzeko datuak biltzean.
- Berdintasunaren eta feminismoaren balioa lantzea hirian (ibilbideak, baliabideak, produktuak...).

● SUSTAPENA, S.A.

Donostia Sustapena SA erakunde publikoa da eta bere helburua da **hiria sustatzea eta haren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzea**, horretarako oinarri hartuta berrikuntza, ezagutzen sorrera eta eraldaketa, sareko lana eta proiektuen sustapena eta kudeaketa, jasagarritasun irizpideei jarraituz.

Donostia Sustapenak parte hartzen du Berdintasunerako III. Plana ezartzeko departamentu arteko Batzordean. Sozietate Anonimo gisa, gomendagarria izango litzateke Berdintasunerako bere barne Plana izatea, beste udal enpresa batzuk bezala.

Donostia Sustapenaren aurrekontua 2020rako **14.172.159,00 eurokoa (udal aurrekontuen % 3,8)** izango da. Beraz, 690.889,00 euro igoko da 2019. urtearekin (% 5,12) alderatuta, urte horretako zenbatekoa 13.481.270,00 eurokoa izan baitzen (udal aurrekontuen % 2,88).

Diru sarreraren atalean, Udalaren ekarpena da diru ekarpenik handiena, 6.503.181,00 euroko ekarpena eginda (% 45,89).

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	3.145.135,00	20,95
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	6.660.404,00	48,54
4	Transferentzia arruntak	4.113.755,00	30,51
GUZTIRA		14.172.159,00	100,00

Donostia UP- Donostiako enplegua sustatzeko planaren barruan, hau guztia egiten dute: kontrataziorako laguntzak kudeatu, langabeei orientabidea eman, klusterrak antolatu, eta hainbat proiektu bideratu, hala nola 35 urtetik beherakoentzako Talentu Berritzailea programa edo 45 urtetik gorakoentzako Esperientzia programa, etab.

Era berean, babes tekniko eta ekonomikoa eskaintzen dizkio ohiko ekintzailetzari, baina ekimenak sektore estrategikoetan sortzen ditu, eta ekimen berriak sendotzeko babesa ere ematen du.

Ez dago emakumeentzako proiektu espezifikorik.

Plan garrantzitsua da generoaren ikuspegitik, are gehiago kontuan izaten badira Donostiako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak adierazten dituen errenta eta autonomia ekonomikoaren datuak (2019). Informazio gehiago behar da, bere programen genero eragina aztertu ahal izateko.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia.	Ez da definitu		
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	2. L Zaintza erantzukideak 7. L Autonomia eta norberaren boterea		
	Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Helduak Behar bereziak dituzten pertsonak		
GENERO ADIERAZLEAK	2017ko onuradunak	Esperientziadunak kontratatzeko dirulaguntzak	% E	% 42,9
			% G	% 57,1
		Enpresa txiki eta ertainentzako kontratazioarako dirulaguntzak	% E	% 65,4
			% G	% 34,6
		Talentua kontratatzeko dirulaguntzak	% E	% 32,3
			% G	% 67,7
		Nazioartekotze bekak	% E	% 46,7
			% G	% 53,3
		Gizarteratze eta laneratze kontratuak	% E	% 41,7
			% G	% 58,3
	Enpresa sortu eta dirulaguntza jasotzen duten pertsonak	% E	% 62,5	
		% G	% 37,5	
		Ekintzailetasun tasa ((ekiten duten emakumeak/1. kontaktua emakumeak)/(ekiten duten gizonak/1. kontaktua gizonak))	1,41	
	2012-2016 aldian diruz lagundutako kontratazioak	Kontrataturako pertsonak	% E	% 58,7
			% G	% 41,3
		Egindako gastuaren banaketa	% E	% 49,9
			% G	% 50,1
		Kontratazio mugagabea	% E	% 59,7
			% G	% 40,3
		Kontratazio partziala	% E	% 67,0
			% G	% 33,0
	2012-2016 aldian enpresa sortzeagatik emandako dirulaguntzak	Emandako laguntzak	% E	% 50,5
			% G	% 49,5
		Emandako dirulaguntzak	% E	% 51,5
			% G	% 48,5
	2012-2016 nazioartekotze bekak	Emandako bekak	% E	% 50,5
			% G	% 49,5
Emakida tasa erlatiboa (emakumeei emandako bekak guztira/emakume eskatzaileak guztira)/(gizonei emandako bekak guztira/gizon eskatzaileak guztira)		0,84		
Berdintasunerako bere plana	Ez dauka Berdintasunerako planik			
Berdintasunerako partida espezifikoa	2020	0,00 €		



– Partida espezifikoa Berdintasunerako erakundearen barne Plana

garatzeko.

- Partida espezifikoa enpleguaren, ikaskuntzaren eta talentua atxikitzearen inguruko proiektuak garatzeko emakumeentzat.
- Partida espezifikoa Donostiako enpresetako berdintasuna eta soldata arrakala kudeatzeko proiektuak egiteko.

● DBUS

Dbus enpresa publikoarentzako aurrekontua 2020an **46.609.290,00 eurokoa izango da (udal aurrekontuen % 10,78), 2019an baino 7.892.629,24 euro gehiago** (% 20,39ko hazkundea); izan ere, programaren zenbatekoa urte horretan 38.716.660,76 eurokoa (aurrekontuen % 8,28) izan zen.

Diru sarreraren atalean, diru sarrerarik garrantzitsuenak, lehenik, zerbitzuak emateagatik prezio publikoak dira (20.887.556,00€) eta, bigarrenak, Udalaren ekarpena (19.294.143,00€).

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	30.771.860,00	66,02
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	8.352.869,00	17,92
3	Finantza gastuak	41.000,00	0,09
6	Inbertsio errealak	6.980.301,00	14,98
9	Finantza pasiboak	463.260,00	0,99
GUZTIRA		46.609.290,00	100,00

Dbus enpresa publikoak urteak daramatza **berdintasuna kudeatzen**. Gaur egun, erakundearen emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa ari da eguneratzen, Berdintasunerako bere III. Plana adosteko.

Berdintasunerako Plan horien esparruan lortu nahi diren helburuak hauek dira: **gidari gehiago izatea emakumezkoak**; aurrerapen handiak lortu dituzte helburu horri begira. **2004tik, emakume gidarien ehunekoa nabarmen igo da: orduko % 4,57tik gaur egungo % 12ra.**

Puntu kritikoaren departamentuen arteko udal taldearen esparruan, 2018an eskaerapeko geldialdien esperientzia pilotu bat egin zen B8-Mirakontxa-Benta Berri-Seminario gautxori linean eta aurtan **eskaerapeko geldialdi sistema ezarri da gaueko zerbitzuetan**. Horrela, emakumeek eta 18 urtetik beherakoek, bitarte batzuetan, ibilbideko geldialdi ofizialen artean jaistea eska dezakete segurtasuna hobetzeko.

Iaz bezala, **4.500,00 euroko berdintasun partida espezifiko** bat jaso da Berdintasunerako bere barne Planean eta Udalaren Berdintasunerako Planean jasotako neurriak garatzeko, eta **8.250,00 euroko beste bat erakundearen Berdintasunerako Plan berria diseinatzeko**.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisia. Mugikortasun alor teknikoa	Ertaina. 18 gehieneko 34ren gain
	Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	2. L Zaintza erantzukideak 3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea 6. L Emakumeen parte hartze soziopolitikoa eta ekonomikoa 7. L Autonomia eta norberaren boterea
	Eragina gizarte kolektibo	Adinekoak

	nagusietan	Helduak Haurrak eta nerabeak Behar bereziak dituzten pertsonak		
GENERO ADIERAZLEAK	Langileak	Gidariak	% E	% 12
			% G	% 88
	2017ko erabiltzaileak	Erabiltzaileak	% E	% 67,46
			% G	% 32,54
		Eguneko lineetako erabiltzaileak	% E	% 67,52
			% G	% 32,48
		Gaueko lineen (gautxoriak) erabiltzaileak	% E	% 57,65
			% G	% 42,35
		Txartel sozialaren erabiltzaileak, sexuaren arabera	% E	% 64,42
			% G	% 35,58
		Txartel gaztearen erabiltzaileak, sexuaren arabera	% E	% 56,65
			% G	% 43,35
		Adinekoen txartelen erabiltzaileak, sexuaren arabera	% E	% 67,02
			% G	% 32,98
		Txartel arruntaren erabiltzaileak, sexuaren arabera	% E	% 70,84
			% G	% 29,16
	DBUS Berdintasun Plana	Berdintasunerako III. Plana egiteko prozesuan Berdintasunerako II. Plana Emakumeen eta Gizonen Berdintasunean lankidetzan ari den erakundea (11/2014 Dekretuaren arabera, Ebazpena: 2015/08/18, EHAA: 2015/12/29) Bai Sarean sartuta dago, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen sarean		
	Berdintasunerako partida espezifikoa	2019. Exekutatzeko maila	% 258,9	
		2020	12.750,00 €	

7.5. Jarduera orokorrak

● HERRI PARTAIDETZA

Herritarren partaidetza programa, *Administrazio orokorra*, gastu politikan jasotakoa, 2020an 2.596.719,27 euro jaitsiko da (-% 74,03). Jaitsiera hori egingo da, zeren iaz inbertsio errealen 6. partidan bi partida sartu ziren 2018-2019 partaidetza aurrekontuen proiektuan botatutako proposamenak txertatzeko. Gainerako kapituluak (1, 2 eta 4) igo egingo dira. 2020an, guztira, programa **910.841,00 eurokoa** izango da eta **udal aurrekontuen % 0,21 izango da**.

KAPITULUA	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA	%
1	Langileen gastuak	445.136,00	48,87
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	335.700,00	36,86
4	Transferentzia arruntak	100.005,00	10,98
6	Inbertsio errealak	30.000,00	3,29
GUZTIRA		910.841,00	100,00

2. kapitulua

Herri partaidetza programaren 2. kapituluaren esleipena 46.000 euro (% 15,88) igoko da 2019tik 2020ra; beraz, 289.700 eurotik 335.700 eurora pasako da.

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.99	Bestelako gastuak	301.000,00
226.99.02	Lurraldeko partaidetza	120.000,00
226.99.03	Asoziazionismoaren sustapena	56.000,00
226.99.04	Udal transbertsalitatea partaidetzarako	15.000,00
226.99.05	Sektore-biztanleria partaidetza	40.000,00
226.99.06	Partaidetza sektorial-tematikoa	10.000,00
226.99.10	Partaidetza aurrekontuak	60.000,00

Aurreko urteetan bezala, Herri Partaidetza departamentuak **berdintasunerako kantitate espezifiko bat esleitu du Udal transbertsalitatea berdintasunerako 226.99.04 partidaren barnean, zehazki 10.000 euro (2019an baino 2.000 euro gehiago) "Puntu kritikoen mapa" partaidetza espazio egonkorrerako; hori gastu eraldatzailatzat jo da**. 2018an eta 2019an ebaluazio sistema garatu eta ezarri du.

Departamentu hau era aktiboan ari da elkarlanean Berdintasunerako III. Plana ezartzeko. Departamentu honek martxan jarri duen ekintzetako batek zerikusia du **herritarren partaidetzarako udal kontseiluekin**. Kontseiluak partaidetza organoak dira, udaleko zenbait sailek kudeatzen dituztenak, esku hartzeko arloaren arabera (ingurumena, gizarte ekintza, berdintasuna, lankidetzak eta abar). Haietan, politikari eta teknikari arduradunek harreman zuzena dute dagokion arloan jarduten duten herritar erakundeetako ordezkariekin.

KONTSEILUA	ELKARTEA / ERAKUNDEAK			NORBANAKOAK			TALDE POLITIKOAK			GUZTIRA		
	EMAKUME	GIZON	GUZTIRA	EMAKUME	GIZON	GUZTIRA	EMAKUME	GIZON	GUZTIRA	EMAKUME	GIZON	GUZTIRA
BERDINTASUNA	15		15	3		3	5		5	23		23
	%100			%100			%100			%100		
GIZARTE EKINTZA	25	20	45	2		2	3	2	5	30	22	52
	%56	%44		%100			%60	%40		%58	%42	
EUSKARA	6	8	14		2	2	3	1	4	9	11	20
	%43	%57			%100		%75	%25		%45	%55	
LANKIDETZA	20	14	34	1	1	2	3	2	5	24	17	41
	%59	%41		%50	%50		%60	%40		%59	%41	
INGURUMENA	7	16	23	2	2	4	1	3	4	10	21	31
	%30	%70		%50	%50		%25	%75		%32	%68	
MUGIKORTASUNA	5	12	17	2	2	4	2	2	4	9	16	25
	%29	%71		%50	%50		%50	%50		%36	%64	
OROIMEN HISTORIKOA	1	10	11		5	5	1	4	5	2	19	21
	%9	%91			%100		%20	%80		%10	%90	
GUZTIRA	79	80	159	10	12	22	18	14	32	107	106	213
	%49,7	%50,3		%45	%55		%56	%44		%50,2	%49,8	
GUZTIRA (berdintasun kontseilua kontuan hartu gabe)	64	80	144	7	12	19	13	14	27	84	106	190
	44,4%	55,6%		37%	63%		48%	52%		44,2%	55,8%	

Iturria: Udal Kontseiluen ebaluazioa

4. kapitulua

Partida	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
481.01	Dirulaguntzak eta hitzarmenak	72.375,00
481.02	Zubietako Batzordeari transferentzia	5.000,00
481.04	Igeldoko Herri Kontseiluari dirulaguntza	7.000,00
481.05	Osteguna-Irale auzo elkarteari dirulaguntza	3.500,00
481.06	Oleta auzo elkarteari dirulaguntza	3.000,00
481.07	Egia Bizirik auzo elkarteari dirulaguntza	2.130,00
481.08	Kanpandegi dirulaguntza	7.000,00
	4. kapitulua, guztira	100.005,00

4. kapituluan sartu dira irabazi asmorik gabeko elkarteentzako dirulaguntzen deialdi bakarra, partaidetza proiektuetarako dirulaguntzak eta lurralde izaerako elkarteen gastu arruntetarako dirulaguntzak.

6. kapitulua

6. kapituluan 30.000,00 euroko partida bat (622.99.01) jaso da, elkarteen lokalak hobetzeko.

GENERO IKUSPEGITIK DUEN GARRANTZIA	2013 eragin-eskumen analisisia.	Oso handia 31 gehieneko 34ren gain		
Aurrekontu programek berdintasunerako III. Planaren esku hartze lerroekin duten erlazioa	3. L Ingurune iraunkorra eta indarkeria matxistarik gabea 6. L Emakumeen parte hartze soziopolitiko eta ekonomikoa			
Eragina gizarte kolektibo nagusietan	Adinekoak Helduak Behar bereziak dituzten pertsonak			
GENERO ADIERAZLEAK	Udal Kontseiluak	Berdintasun Kontseiluko kideak	% E	% 100,0
			% G	% 0,0
	Berdintasunerako partida espezifikoak	Gainerako udal kontseiluetako kideak	% E	% 44,4
			% G	% 55,6
		2019. Exekutatzeko maila	% 100,00	
		2020	10.000,00 €	

8. GASTU ERALDATZAILEA 2020KO UDAL AURREKONTUETAN

2019an egindako prozesuaren ondorioz, udal aurrekontuetan hobekuntzak jaso dira eta horiekin aurrekontuaren gastu eraldatzailea igo ahal izan da. **Gastu eraldatzailetzat jotzen da laguntzen duena genero despaketotasunaren oinarrian dauden funtsezko egiturak desagiten, eta despaketotasun hori eragiten eta errepikatzen duten mekanismoak apurtzen.**

2019ko udal aurrekontuetan ehuneko hori % 0,43koa zen. Kasu honetan, **% 0,48koa izango da.**

Departamentua	1. kap.	2. kap.	4. kap.	6. kap.	GUZTIRA	%/ aurrekontu guztia
Berdintasuna	499.993,00	326.381,00	128.000,00	50.000,00	1.004.374,00	% 0,23
Lankidetzaz			773.748,00		773.748,00	
Gizarte ekintza	115.000,00	14.460,00			129.460,00	
Hezkuntza programak		51.916,00			51.916,00	
Giza eskubideak		10.000,00			10.000,00	
Kultur aniztasuna		10.000,00			10.000,00	
Donostia Kultura		23.000,00			23.000,00	
Musika eta dantza eskola		4.920,00			4.920,00	
Gazteria		25.500,00			25.500,00	
Donostia Kirola		6.735,00			6.735,00	
Udaltzaingoa		3.500,00			3.500,00	
Hiri mantentze eta zerbitzuak		25.000,00			25.000,00	
Dbus		12.750,00			12.750,00	
Herri partaidetza		10.000,00			10.000,00	
GUZTIRA	614.993,00	483.562,00	901.748,00	50.000,00	2.090.903,00	% 0,48

9. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

● Udalaren funtsezko tresnekin artikulatzea

Udal aurrekontuen analisia genero ikuspegitik egitea analisi tresna bat da, eta bere helburua da gizartearen dagoen genero despaketotasuna murrizteko eta emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egiteko aurrekontuek duten eragina hobetzea. Funtsezkoa da tresna hori Udalaren beste estrategia eta kudeaketa tresna batzuekin artikulatzea; besteak beste, hauekin: **kudeaketa plana, departamentuetako planak edo**

partaidetza aurrekontuen proiektua.

Ildo horretan, funtsezkoa da jakitea **zein den aztertutako aurrekontu programak igotzeko/jaisteko arrazoia** eta gehikuntza eta murrizketa horiek Udalaren departamentuek, enpresek eta erakundeek markatutako erronka estrategikoekin duten erlazioa.

Funtsezkoa da, halaber, **Udalaren beste tresna hauek berdintasuna** zeharkako eran sartzea eta Udalaren departamentuentzako, enpresentzako eta organismoentzako helburu eta neurri espezifikoekin egitea.

● **Aurrekontu programen analisisa pixkanaka zabaltzea**

Txosten honetan aztertutako programekin garatutako prozedura genero ikuspegitik garrantzitsuak diren beste programa batzuetara zabaltzea.

Aurreko txostenean gomendatutako 4 programetatik burutu gabe daude hauek: **Lehendakaritza, Giza baliabideak, Informazioko udal unitatea eta Herriarrentzako Arreta**, *Administrazio orokorra gastu politikakoak; Politika ekonomikoa eta fiskala, Finantza eta zerga administrazioa gastu politikakoa.*

Beste programa interesgarri batzuk hauek dira: *Prebentzio, su itzalketa eta salbamendu zerbitzua, Cristina Enea, Jasangarritasuna, Ekialdeko barrutia.*

● **Sakontzea udal inbertsioen analisian**

Inbertsioen programaren genero eragina era egokian aztertu ahal izateko, **beharrezkoa da garaiz izatea informazio zehatza** baloratzen diren inbertsioei buruz, lehenesten direnei buruz eta horien oinarriei buruz, xede taldeei buruz, etab.; baita udalaren departamentuek, enpresek eta erakundeek lortu nahi dituzten erronka estrategikoekin duten loturari buruzkoa ere.

● **Programen analisian bildutako gomendioak: gastu eraldatzailea igotzea eta parte hartzea berdintasunaren politiketan**

Txosten honetako 7. atalean egindako analisian zehar gomendioak bildu dira aztertutako programa batzuetarako. Horiek guztiak taula honetan ikus daitezke taldekatuta:

PROGRAMA	GOMENDIOAK
Berdintasuna	• Pixkanaka handitzea aurrekontu programa honen pisua. • Inbertsioen kapituluan sartzea Emakumeen Etxerako toki berrirako inbertsioak
Gizarte Ekintzako programak	• Mantentzea aurreko urtean berdintasunerako partida espezifikoaren kantitateak. • Inbertitzea gehien maskulinizatutako baliabideak neutralizatzen: baliabideak etxegabeentzat, erretirodunen etxeak.
Ikastetxeen funtzionamendua	• Partida zehatz bat esleitzea jolasleku kohezitzaileetarako.
Donostia Kultura	• Aurreko urteko berdintasunaren gastu espezifikoaren zenbatekoa finkatzea
Donostia Kirola	• Pixkanaka igotzea berdintasunaren partida Patronatuaren plangintza

	estrategikoan jasotako helburuak eta jarduketak era egokian garatzeko.
Mugikortasuna	Txertatzea partida espezifiko bat mugikortasunaren programak generoaren ikuspegitik garatzeko.
Hirigintza	Partida espezifiko bat sartzea prestakuntza izateko eraginaren aurretiazko ebaluazioak generoaren arabera egiteko edo horiek egiteko kanpoko laguntza tekniko bat kontratatzeke.
Hondartzak	Partida espezifiko bat sartzea, besteak beste, kabinetako, aulkien eta eguzkitakoetako pertsonalak prestakuntza jasotzeko indarkeria matxistaren prebentzioan, edo halakorik bada, berdintasun klausulak txertatzeko zerbitzuak kontratatzeke agirietan.
Donostia Turismo	- Parte hartzea Batzorde Politiko eta Teknikoan Udalaren Berdintasunerako Plana ezartzeko. - Sexuaren aldagaita sartzea datuak biltzean. - Berdintasunaren eta feminismoaren balio lantzea hirian (ibilbideak, baliabideak, produktuak...).
Sustapena	- Partida espezifiko Berdintasunerako erakundearen barne Plana garatzeko. - Partida espezifiko enpleguaren, ikaskuntzaren eta talentua atxikitzearen inguruko proiektuak garatzeko emakumeentzat. - Partida espezifiko Donostiako enpresetako berdintasuna eta soldata arrakala kudeatzeko proiektuak egiteko.

Gomendatzen dugu pixkanaka handitzea udal aurrekontuen gastu eraldatzailearen ehunekoa. Horretarako, Berdintasunaren aurrekontu programaren (udalerriko genero arrakalak deuseztatzea eta berdintasuna sustatzea bideratzen da guztia) pisua igotzeaz gain, beharrezkoa da 2019ko aurrekontuetarako partida negoziatuak finkatzea eta generoaren ikuspuntutik garrantzitsuak diren berdintasunerako partida espezifikoak adostea aurrekontu programa guztietan. Partida horiek guztiak txosten honetan aztertu dira baina ez dira jaso.

● **Gastu eraldatzailearen exekutatzeko analisia hobetzea**

Adierazi dugun bezala, txosten honen 5. atalean jasotzen den gastu eraldatzailearen exekutatzeko segimendua osatzeko helburuarekin, **2020. urteko lehen hiruhilekoan horri buruzko txosten exekutibo bat egingo da**, "2019ko udal aurrekontuen azterketa generoaren ikuspegitik" txostenean gomendatu zen bezala.

Gomendatzen dugu txosten honetan **jasotzea Berdintasunaren aurrekontu programaren gastuaren exekutatzeko analisia.**

I. ERANSKINA

2020ko udal aurrekontuei egindako zuzenketen ondorioz, gastu eraldatzaileak jotzen diren zenbait kontusail sortu edo gehitu dira:

- Programa: Haurren eta familien prebentzioa
Kontusaila: 201.01 Eraikinen errentamendua
Kontzeptua: Indarkeria matxistaren biktimentzako etxebizitzak
Zenbatekoa: 40.000 €-rekin sortu
- Programa: Hirigintza
Kontusaila: 643.03 Pikabea eta Oletako Plan Bereziak
Kontzeptua: Irisgarritasuna hobetzea eta Pikabeako eta Oletako puntu kritikoak kentzea
Zenbatekoa: 70.000 €-rekin sortu
- Programa: Berdintasuna
Kontusaila: 601.01 Hiriko zenbait puntu kritiko hobetzea
Zenbatekoa: 20.000 €gehitzea

Kontusail horiek kontuan hartuta, gastu eraldatzailearen taula hau da:

Departamentua	1. kap.	2. kap.	4. kap.	6. kap.	GUZTIRA	%/ aurrekontu guztia
Berdintasuna	499.993,00	326.381,00	128.000,00	70.000,00	1.004.374,00	0,23%
Lankidetzak			773.748,00		773.748,00	
Gizartekintza	115.000,00	54.460,00			129.460,00	
Hezkuntza programak		51.916,00			51.916,00	
Giza Eskubideak		10.000,00			10.000,00	
Kultur Aniztasuna		10.000,00			10.000,00	
Donostia Kultura		23.000,00			23.000,00	
Musika eta Dantza Eskola		4.920,00			4.920,00	
Gazteria		25.500,00			25.500,00	
Donostia Kirola		6.735,00			6.735,00	
Udaltzaingoa		3.500,00			3.500,00	
Hiri mantenua eta zerbitzuak		25.000,00			25.000,00	
Dbus		12.750,00			12.750,00	
Herri Partaidetza		10.000,00			10.000,00	
Hirigintza				70.000,00		
GUZTIRA	614.993,00	523.562,00	901.748,00	140.000,00	2.220.903,00	0,51%

Horrela, gastu eraldatzaileak udal aurrekontuen zenbateko osoan duen pisua %0,48tik %0,51ra igo da zuzenketen ondoren.